

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Gazte Politika

Eusko Jaurlaritzaren 2007ko zeharkako
gazte-politikari buruzko jarraipen-
txostena

Aurkibidea

I.- KOORDINATU, BULTZATU ETA GARATZEKO MEKANISMOAK ZEHARKAKO GAZTE POLITIKAREN GARAPEAN	
ZUZENDARITZA BATZORDEA.....	4
GAZTEEN EUKAL BEHATOKIA	5
EUSKO JAURLARITZA.....	8
Gobernu Kontseilua.....	8
Planen arteko koordinazioa.....	8
Mahai Sektorialak.....	8
Gazte ataria eta leihaitila bakarra.....	8
Toki-Erakundeei emandako diru-laguntzak.....	9
Gazteen euskal legearen aurreproiektuaren lantze-prozesua.....	13
FORU ALDUNDIAK ETA HIRIBURUETAKO UDALAK	
Arabako Foru Aldundia: Gazte Plana toki-erakundeetan bultzatzeko diru-laguntzak.....	14
II.- EUSKO JAURLARITZAREN 2007KO EKITALDIKO EKINTZA POSITIBOKO KONPROMISOEN LABURPENA (aurrekontua eta ekintza-kopurua)	
Ekintza positiboen zerrenda Eusko Jaurlaritzako sailen arabera antolatuta.....	
Jaurlaritzaren Lehendakaritza.....	18
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.....	19
Herrizaingo Saila.....	22
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.....	23
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.....	24
Osasun Saila.....	28
Kultura Saila.....	30
Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila.....	35
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.....	37
III.- ZEHARKAKO GAZTE POLITIKAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LAN, HEZKUNTZA, ETXEBIZITZA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN ARLOKO POLITIKEN ARTEKO OSAGARRITASUN- ETA KOORDINAZIO-MAILA, 2007 URTEAN.....	
Aurrekariak.....	39
Enplegu-politikak	40
Hezkuntza-politikak	46
Etxebizitza-politikak.....	53
Informazio-gizarteari buruzko politikak.....	57
IV – EKINTZEN BETETZE-MAILA: Sailek ebaluatutako ekintzak.....	
Jaurlaritzaren Lehendakaritza.....	63
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.....	70
Herrizaingo Saila.....	93
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.....	98
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.....	105
Osasun Saila.....	131
Kultura Saila.....	145
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.....	194
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.....	208

ZEHARKAKO POLITIKAREN GARAPENA

2007. URTEAN

KOORDINATU, BULTZATU ETA GARATZEKO MEKANISMOAK

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

Abenduaren 20ko bilera. Aztertutako gaiak:

- Azken bilerari buruzko akta onartzea.
- Gazteen Euskal Legea izango dena behin betiko onartu bitartean instituzioek onartutako aldi baterako neurriei buruzko informazioa:

- 2006ko ebaluazioa:
 - a) Erakundeek dagozkien datuak aurkeztea.
 - b) 2006ko gazte-politika integralaren garapenari buruzko txostena onartzea.
- 2007ko programazioa: Erakundeek dagozkien datuak aurkeztea.

Honako hauei buruzko informazioa:

- II. Gazte Planaren emaitzen ebaluazio-prozesuaren nondik norakoak instituzio bakoitzean.
- Gazteen Euskal Legearen lantze-prozesua.
- Azken zuzendaritza-batzordea egin zenetik gaurdaino gazte-politika koordinatu, bultzatu eta garatzeko abian jarritako beste mekanismo batzuk.

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA

BILTZARRAK:

- *Gazteei eta gatazkari buruzko nazioarteko konferentzia:*

2007ko urriaren 18, 19 eta 20an izan zen *Youth Work In Contested Spaces* (YWICS) — Gazteen lanean Gatazkan dauden Gizarteetan, alegia— konferentziaren laugarren edizioa; 50 lagun baino gehiago elkartu ziren Arantzazun (Oñati). Konferentzia Ipar Irlandako *Public Achievement* izeneko GKEk eta Gazteen Euskal Behatokiak antolatu zuten, *Baketik* bakearen aldeko zentroarekin lankidetzan.

- *Kultura Arteko eta Erlijioen Arteko Elkarrizketari buruzko Gazteen Nazioarteko Mintegia:*

Barandiaran Kristau Alkartea – Pax Romana erakundeak antolatu zuen.

Behatokia izan dute egoitza eta antolaketa-lanetan ere lagundu du. Abenduan izan zen mintegia.

BEKAK:

Banakako bi ikerketa-bekaren inguruko deialdia egin eta bekak eman dira. Beka horietako bakoitza 15.000 eurokoa da, eta euskal gazteriarekin zerikusia duten gaiak aztertzeke eta ikertzeke 30 urte baino gutxiago dituzten pertsonentzat dira. Hamabi hilabeterako dira bekak. Bekak abenduan eman ziren.

IKERKETAK:

Epealdi honetan bost ikerketa jarri dira abian eta amaitu dira:

- *Euskadiko Gazteen Panoramika 2:*

Euskadiko gazteriaren berri emango duten adierazle kuantitatibo nagusiak bildu eta aztertzea. Gure helburua izan da Euskadik orokorrean, eta 15 eta 19 urte bitarteko adin-taldekoek bereziki, hainbat adierazle sozial eta ekonomikotan zer antzekotasun eta desberdintasun duten jakitea, EUROSTATEk argitaratutako 25 estatudun Europar Batasunaren (EB-25) datuekiko. EB-25 eta Euskadiz gain, Europar Batasuneko beste 12 estatu kide ere hartu ditugu kontuan; analisi-lana aberatsagoa izan dadin hautatu ditugu herrialde horiek, eta lurraldearen araberako zenbait gizarte-egoera erantsi ditugu. Azken batean, zenbait adierazle sozio-demografikori buruzko analisi konparatiboa egin da, eta 3 lurralde-maila bereizi ditugu:

- 25 estatudun Europar Batasuna (EB-25)
- Europar Batasuneko 12 estatu: Alemania, Danimarka, Eslovenia, Espainia, Frantzia, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia, Polonia, Erresuma Batua eta Suedia
- Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

- *Gazteen argazkiak 10:*

Lehendakaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako txostena, egunerokotasuna duten gaiei erreparatzeko.

- *Gazteak, gutxitasunak eta aisia:*

Ikerketaren azken xedea gutxitasunak dituzten gazteen eguneroko bizimodua hobetzea da, kalitatezko aisialdia garatuta. Deustuko Unibertsitateko Aisiari buruzko Ikerketetarako Institutuari eskatu zaio ikerketa-lana.

- *Euskadiko gazteriaren mugikortasun espazialaren ereduak:*

Gazteen Joerak izeneko atalaren barruan egindako ikerketa da, eta Euskadin gazteek dituzten mugikortasun-ereduak aztertzen dira.

- *Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntza Gida* berrikustea.

ARGITALPENAK:

Behatokiak liburu hau argitaratu du:

- *Euskadiko Gazteen Panoramika. Gazteen adierazleak 2007.*

PRENTSAURREKOAK:

Epealdi honetan bi ikerketa hauek aurkeztu ditu behatokiak, eta, horretarako, prentsaurrekoa antolatu eta web orrian ere adierazi zuen:

- *Euskadiko Gazteen Panoramika. Gazteen adierazleak 2007.* 2007ko uztaila
- *Gazteen argazkiak 10.* 2007ko azaroa

Horiez gain, jarduera hauek ere aurkeztu eta antolatu zituen behatokiak:

- *Gatazkak etikoki lantzeko* ikastaroak, Baketik Bake Zentroak eta GEBk antolatua. 2007ko apirila.
- 2006 ekitaldira bitartean behatokiak abian jarritako hezkuntza-jardueren laburpena. 2007ko apirila.
- Gazteei eta gatazkari buruzko nazioarteko konferentzia. 2007ko urria.
- Boluntarioen Nazioarteko Eguna. *Elkarteentzako Koaderno praktikoak* liburuaren aurkezpena. 2007ko abendua.
- Kultura Arteko eta Erlijioen Arteko Elkarrizketari buruzko Gazteen Nazioarteko III. Mintegia. 2007ko abendua.

ESTATISTIKAK:

- *Estatistika-baseak* sortu, kudeatu eta haien mantentze-lanak, bai eta horiek web orrietan editatu ere.
- GEBren Adierazleen Sistema izeneko *estatistikak kudeatzeko* eta horiek jakinarazteko *aplikazio berriaren* diseinua eta instalazioa. Beste bi sail sortu dira, eta gazteen egoerari buruzko informazio gehiago eskaintzen duten zenbait estatistika-datu biltzen dira horietan; *aisia eta denbora libre, balioak, jokabideak eta partaidetza*.
- *Adierazleen analisia* eta horien hedapena, honako hauek erabilita:
 1. Gazteaukera buletin hilabetekaria, 11.000 gazteri banatua
 2. GEBren web orriko berrien atala
 3. Gazte.doc buletin elektronikoa, lau hilabetekaria, 1.000 gazteria-eragile ingururi banatua.
- Adierazleen analisisen historikoa egin, datu guztiak biltzeko eta horiek GEBren web orrian errazago kontsultatzeko sortua.
- *Gazte-planei, - ekipamenduei eta tokiko zein eskualdeetako gazteria-zerbitzuei buruzko datu-basearen* diseinua.
- Gazteentzako ekipamenduei buruzko datu-basea egin.
- Gazteentzako Zerbitzuei buruzko datu-basea egin.
- *Euskal Estatistika Plana (2005-2008)* izenekoan parte hartu, Gazteen Panoramikaren estatistika-ekintzaren bidez.
- Estatistika-ekintzaren proiektu teknikoa egin, bildutako datuei ofizialtasuna eman ahal izateko.
- *Gazteen Euskal Legea*. Gazteen Euskal Legearen zirriborroa prestatzeko prozesuan, eta generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena osatzeko, GEBk beharrezkoak izan diren datuak eman ditu.

WEB ORRIA:

Ekitaldi honen joanean, zenbait aldaketa egin ditugu web orrian:

- *Esperientzia trukea* izeneko atal berria; besteak beste, mintegien, konferentzien eta hitzaldien berri emateko.
- Web orriaren ingelesezko bertsioa berrikusi eta eguneratu.
- *Gazte.doc* izeneko buletina, buletinaren diseinu berria eta behatokiaren direktorioan parte hartzen dutenei hura bidali.

DOKUMENTAZIO-ZENTROA:

Dokumentazio-zentroaren liburutegia Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean sartu ondoren, 3.350 ale ditugu katalogatuta egun.

ARGITALPENEN BANAKETA:

Behatokiak hiru argitalpen plazaratu ditu:

- *Euskadiko I. Gazte Planaren azken ebaluazioa*. 2007ko urtarrilean banatua
- *Euskadiko Gazteen Panoramika. Gazteen Adierazleak 2007*. 2007ko abuztu eta iraila bitartean banatua
- *Gazteen argazkiak 10*. 2007ko azaroan banatua

Bi argitalpen horien artean, guztira, 5.100 ale banatu dira. Bestalde, behatokiaren zenbait argitalpen jasotzeko eskaera egin dizkigute. Hain zuzen ere, 42 eskaera jaso ditugu eta 177 ale banatu.

PRESTAKUNTZA:

2007. urtean, GEBk hiru lurralde historikoetara zabaldu du prestakuntza-jarduera eta gai askori buruzko 9 ikastaro eman ditu Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Hauek dira, hain zuzen, ikastaroak:

- *Gazte-indarkeria: berdinen arteko indarkeriaren nolakotasuna eta udalerrri-mailan esku-hartzeko politikak*. 2007ko otsaila.
- *Gatazkak etikoki lantzeko ikastaroa*. 2007ko apirila eta maiatza.
- *Nerabeekin esku-hartzea, prebentzioaren ikuspuntutik*. 2007ko azaroa.
- *Gatazkak etikoki lantzeko ikastaroa. Sakontze-ikastaroa*. 2007ko abendua.

Guztira, 122 eskola-ordu eman dira eta 161 lagunek parte hartu dute; batik bat, udaletako, aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako gazteria-arloko teknikariek. Horiekin batera, lehendabiziko aldiz, Euskadiko ikastetxeetako aholkulariak eta Gizartean eta Hezkuntzan parte-hartzeko hezitzaileak eta Gazteguneeetakoak ere aritu dira.

EUSKO JAURLARITZA

GOBERNU-KONTSEILUA:

- 2005. urteari dagokion EAEko II. Gazte Planaren jarraipenari buruzko txostenaren onespena (abenduaren 18an).
- 2006ko ekitaldiko ekintza positiboei buruzko programaren onespena, Gazteen Euskal Legea izango dena onartu bitarteko gazte-politika integrala bultzatzeko aldi baterako neurriak direla eta. (abenduaren 26a)
- 2007ko ekitaldiko ekintza positiboei buruzko programaren onespena, Gazteen Euskal Legea izango dena onartu bitarteko gazte-politika integrala bultzatzeko aldi baterako neurriak direla eta. (abenduaren 26a).

PLANEN ARTEKO KOORDINAZIOA:

Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren bitartez, Gazte Planaren Idazkaritzak erakunde eta plan hauetan parte hartu du:

- Gizarte-ongizateko Euskal Kontseilua.
- Boluntarioen Euskal Kontseilua.
- Droga-mendekotasunei buruzko bost urteko plana eta Droga Mendekotasunen Aholku Kontseilua.
- Estatistikako Euskal Plana.
- Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana.
- Gutxitasunak dituzten pertsonak EAEko lan-merkatu arruntera sartzeko plana.
- Gizarteratzeko Plana.
- Immigrazioaren Euskal Plana.
- Kultura Sailaren Euskara Plana.
- EAEn emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako IV. Plana.
- Pirinioetako Lan Elkartea: Kultura, Gazteria eta Kirol batzordea.
- Garraio Jasangarriaren Plan Zuzentzailea 2002-2012.
- Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana.

MAHAI SEKTORIALAK:

- **Bakearen aldeko hezkuntza** (Giza Eskubideen Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza, Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Immigrazio Zuzendaritza, Terrorismoaren Biktimen Zuzendaritza eta Lehendakaritza).
- **Osasunerako eta drogen mendekotasunaren prebentziorako hezkuntza** (Osasun Publikoko Zuzendaritza, Droga-mendekotasunen gaietarako Zuzendaritza, Gazteria Zuzendaritza eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza).

GAZTE ATARIA ETA LEIHATILA BAKARRA:

- Euskadi.net atarian integratuta daude edukiak, eta, beraz, Gazteaukeran bertan ikus daiteke autonomia-erkidegoko sailei eta erakundeei buruzko informazioa. Horrezaz gain, Eusko Jaurlaritzak antolatzen dituen beka, laguntza eta diru-laguntza guztiei buruzko informazio guztia dago eskuragarri. 2007ko otsailean orria berriz diseinatu zen, eta, harrezkero, errazagoa da bertan nabigatzea, edukiak txukunago ageri dira eta erabiltzaileak errazago aurkitzen ditu edukiak. Besteak beste, trafikoari eta eguraldiari buruzko informazio-zerbitzuak gehitu dira.
- Gazteen Euskal Behatokiaren edukiak erantsi dira, gazteriarekin zerikusia duten pertsonentzako eduki interesgarriak. Atal hauek dira nabarmentzeko modukoak: legeria,

argitalpenak, prestakuntza-ikastaroak, estatistikak, laguntzak, dokumentazio-zentroa eta profesionalak. Edukiak ingelesez ere jarri dira.

- 2007. urtean auzolandegietarako izen-ematea, Gazteaukeraren bidez egin da. Libre zeuden plazak denbora errealean kontsultatu dira eta izena ematearekin batera gorde zaio plaza eskaera egin duenari. Ordainketa banku-sukurtsalean edo banka elektronikoz egin daiteke. Sistemak berak jakinarazten du SMS bidez plaza lortu dela.
- 2007ko auzolandegietan parte hartu dutenen arteko argazki- eta idazlan-lehiaketaren lehen edizioa. Lan horiek Gazteaukeran argitaratu dira eta web orriaren bidez programaren berri emateko oso baliagarria da.
- Gazte-txartelaren titularrentzat antolatutako lehiaketa eta zozketetan jende askok parte hartu du Gazteaukeraren bidez.
- Erabiltzaileen partaidetza. Gazteria Zuzendaritzaren programetan parte hartzen duten lagunek beren bizipenak kontatzen dituzte eta argazkiak eta idazlanak bidaltzen dituzte. Material hori web orrian eta blogean argitaratzen da.
- Bulegoa Interneten. Web orriaren bisitari-kopuruak gora egin du nabarmen. Gazteaukeraren web orriaren bisitari-kopuruak % 67 egin du gora, 2006. urtearen aldean (973.202 izan ziren 2007an). Halaber, Gazteaukeraren blogak ere joan den urtean baino bisitari gehiago izan ditu, hain zuzen ere, % 40 gehiago (2007. urtean 65.139). Gazteaukerak eskaintzen duen posta elektronikoa da gehien erabiltzen den komunikazio-kanala kontsultak egiteko eta informazioa eskatzeko.
- Gazteaukera bloga. 2007. urtean etapa berri bati ekin zion blogak, gazteentzat gai interesgarri berriak erantsi baitzituen, eta nabarmentzeko modukoa izan da gazte-jendearen parte-hartzea.

TOKI-ERAKUNDEEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK, Eusko Jaurlaritzak 2007ko ekitaldirako antolatutako ohiko deialdien bidez:

A.- Gazte-politika integrala toki-tokian bultzatzeko:

Diru-laguntzak honako hauetarako dira: gazte-politika integralak ezartze aldera premiei buruzko edo neurrien planifikazioari buruzko azterlanak, analisiak edo aurretiazko txostenak egiteko; eta/edo gazteriarekin zerikusia duten sailen arteko plan estrategikoak egiteko gastu arruntak ordaintzeko; edo gazteentzako zerbitzuak ezartzeko, sendotzeko eta garatzeko; bai eta gazte-politika integrala garatzeko toki-erakundeek propio abian jarritako jarduerak eta ekintzek eragindako gastuak ordaintzeko ere.

ERAKUNDEA	EGITASMOA	EMANDAKOA €
ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA	PUNTO DE INFORMACIÓN JUVENIL DE ABANTO- ZIERBENA 2007. ABANTO-ZIERBENAKO GAZTEENTZAKO INFORMAZIO GUNEA.	2.618,76
AJANGIZKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AJANGIZ	AJANGIZKO GAZTE POLITIKA INTEGRALA GARATZEKO EKINTZAK	947,64
ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA/AYUNTAMIENTO DEALEGRÍA-DULANTZI	GAZTEEKIN ESKU-HARTZEKO PLAN GLOBALA 2007: ALEGRIA-DULANTZI	4.870,42
ALONSOTEGIKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE	ALONSOTEGIKO GAZTEENTZAKO INFORMAZIO- ZERBITZUA	3.042,31

ALONSOTEGI		
AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA-ETXANO	GAZTE ALORREKO PROGRAMAK ETA JARDUERAK- AMETX 2007	21.209,10
ARANTZAZUKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ARANTZAZU	ARRATIAKO GAZTE POLITIKA INTEGRALAK 2007- ARANTZAZU	1.632,53
AREATZAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AREATZA	ARRATIAKO GAZTE POLITIKA INTEGRALAK 2007- AREATZA	2.401,31
ARRASATEKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ARRASATE/MONDRAGÓN	INFORMAZIOA-AISIA HEZITZAILEA-SUSTAPENA	23.402,87
ARRIGORRIAGAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA	GAZTEENTZAKO INFORMAZIO-ZERBITZUAK INDARTU ETA GARATZEKO	29.638,89
ARTEAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ARTEA	ARRATIAKO GAZTE POLITIKA INTEGRALAK 2007- ARTEA	362,66
AZKOITIKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA	AZKOITIKO GAZTERIA PLANGINTZA	10.000,00
AZPEITIKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA	GAZTE ZERBITZUAK INDARTU ETA GARATZEKO JARDUERAK	43.805,23
BALMASEDAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE BALMASEDA	GAZTEENTZAKO INFORMAZIO-ZERBITZUA ANTOLATZEKO ETA JARDUERAK ABIAN JARTZEKO	53.070,38
BARAKALDOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO	GAZTE-ZERBITZUAK	18.333,33
BEDIAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE BEDIA	ARRATIAKO GAZTE POLITIKA INTEGRALAK 2007- BEDIA	8.261,37
BERGARAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE BERGARA	GAZTE INFORMAZIOGUNEA	2.454,12
BERMEOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE BERMEO	SAILARTEKO GAZTE-PLANA ETA GAZTE- ZERBITZUAK.GAZTE-POLITIKA INTEGRALAK GARATZEKO JARDUERAK	37.443,60
BILBOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE BILBAO	II. GAZTE PLANA, BILBAO AKTIKA! 2007-2009	148.549,92
DIMAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE DIMA	ARRATI-KO GAZTE POLITIKA INTEGRALAK 2007- DIMA	1.931,99
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁNKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	EUROPAKO GAZTEEN ARTEKO TRUKEA	3.761,51
ELGOIBARKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR	GAZTERIA POLITIKA INTEGRALA 2007	22.312,69
ELORRIOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ELORRIO	ELORRIOKO GAZTE ZERBITZUA	788,97
ERANDIOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ERANDIO	ERANDIOKO GAZTE INFORMAZIO BULEGOA	12.759,73
ESKORIATZAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA	ESKORIATZAKO GAZTELEKU PROGRAMA	473,61
ETXEBARRIKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ETXEBARRI	GAZTERIA POLITIKA INTEGRALAK GARATZEKO JARDUERA ETA EKINTZA JAKINAK	21.388,66
GALDAMESKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE GALDAMES	GAZTE EKINTZAK	17.079,76
GERNIKA-LUMOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE	ASTEBURUETAKO AISIALDIRAKO EGITASMOA- 2007- GAZTE PLANA	3.768,92

GERNIKA-LUMO		
GETARIAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE GETARIA	GAGLO GAZTELEKUA	6.158,85
IGORREKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE IGORRE	ARRATIAKO GAZTE POLITIKA INTEGRALAK 2007- IGORRE	26.628,45
KARRANTZA HARANA/VALLE DE CARRANZAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE KARRANTZA HARANA/VALLE DE CARRANZA	GAZTEEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK: 2007	6.094,79
LAUDIO/LLODIOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE LAUDIO/LLODIO	LAUDIOKO TOP ZINEMA, GAZTEENTZAKO ZINE- ZIKLOA, SEXU SEGURU ETA ATSEGINARI BURUZKO TAILERRAK	5.625,22
LEIOAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE LEIOA	GAZTE EKINTZAK	8.382,71
LEKEITIOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE LEKEITIO	GAZTE DINAMIZAZIOA: EKINTZAK 2007	2.445,21
LEMOAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE LEMOA	ARRATIAKO GAZTE POLITIKA INTEGRALAK 2007- LEMOA	10.281,02
MAÑARIKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE MAÑARIA	MAÑARIKO II MAKETA LEHIAKETA	717,5
MORGAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE MORGA	GAZTEEN ALORREAN PLANAK, PROGRAMAK ETA JARDUERAK	624,56
MUNDAKAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE MUNDAKA	GAZTEEN ALORREAN PLANAK, PROGRAMAK ETA JARDUERAK	615,82
NABARNIZKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE NABARNIZ	NABARNIZKO GAZTEEN ALORREAN PLANAK, PROGRAMAK ETA JARDUERAK	802,05
PORTUGALETEKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE	PORTUGALETEKO GAZTERIA POLITIKA INTEGRALA GARATZEKO PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA	12.814,34
SALVATIERRA/AGURAINGO UDALA/AYUNTAMIENTO DE SALVATIERRA/AGURAIN	AGURAINGO GAZTELEKUA. KALEAN ESKU- HARTZEKO ETA HEZTEKO PROGRAMA 2007	13.235,30
SESTAOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE SESTAO	SESTAOKO GAZTEENTZAKO INFORMAZIO- ZENTROAREN ETA GEZTELEKUAREN JARDUERAK 2007	459,31
SOPELANAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE SOPELANA	GAZTE EKINTZAK	9.441,52
TOLOSAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE TOLOSA	GAZTE INFORMAZIO BULEGOA-GIPUZKOA ENCOUNTER I	44.358,41
UBIDEKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE UBIDE	ARRATIAKO GAZTE POLITIKA INTEGRALAK 2007- UBIDE	1.090,33
UGAO-MIRABALLESEKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE UGAO-MIRABALLES	GAZTELEKU. GAZTEENTZAKO PROGRAMA - UGAO-MIRABALLES	10.376,49
URDUÑA-ORDUÑA UDALA/AYUNTAMIENTO DE URDUÑA-ORDUÑA	GAZTEGUNEKO INFORMAZIOGUNEAK	605,9
VITORIA-GASTEIZKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ	BIDE SEGURTASUNERAKO PROGRAMA – GAZTEEI SEXUALITATEAREN INGURUAN ARRETA EMATEKO PROGRAMA	23.833,33
ZALLAKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ZALLA	GAZTE ZENTROA. GAZTEENTZAKO BALIABIDEEN ZENTROA. CENTRO DE RECURSOS PARA JÓVENES	7.196,36
ZARAUTZEKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ	GAZTEEN IKERKETA	9.572,50

ZEANURIKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ZEANURI	ARRATIAKO GAZTE POLITIKA INTEGRALAK 2007- ZEANURI	1.647,64
	Guztira:	699.317,89 €

B.- Gazteentzako ekipamenduak sortzeko edo hobetzeko: gazteentzako ekipamenduak berariaz beren baitan hartuko dituzten higiezinak eraikitzeko, berritzeko, egokitzeko edo handitzeko obrak egiteko proiektuak idazteko laguntzak, bai eta obra horien exekuzioari buruzko proiektuak idazteko laguntzak ere; proiektu horiek gaituta dauden profesionalak egin behar dituzte.

ERAKUNDEA / ENTIDAD	EGITASMOA / PROYECTO	EMANDAKOA/ CONCEDIDO
Alonsotegiko Udala/Ayuntamiento de Alonsotegi	GAZTEENTZAKO BALIABIDEEN ZENTROA (LANAK 2007)	5.477,58
Alonsotegiko Udala/Ayuntamiento de Alonsotegi	GAZTEENTZAKO BALIABIDEEN ZENTROA (MATERIALAK 2007)	3.706,84
Aramaioko Udala/Ayuntamiento de Aramaio	GAZTE LOKALA BERRITU (LANAK 2007)	906,59
Aramaioko Udala/Ayuntamiento de Aramaio	GAZTE LOKALA BERRITU (MATERIALAK 2007)	876,49
Aretxabaletako Udala/Ayuntamiento de Aretxabaleta	GAZTELEKU BERRIRAKO ALTZARIEN HORNIKUNTZA (MATERIALES/MATERIALAK 2007)	4.645,16
Arrigorriagako Udala/Ayuntamiento de Arrigorriaga	ENTSEGUAK EGITEKO MATERIALA ETA GAZTEGUNEAK (MATERIALAK 2007)	9.290,32
Asparrenako Udala/Ayuntamiento de Asparrena	ANDRA MARI-ARAIKO ESKOLA ZAHARRAK BIRGAITU (LANAK 2007)	1.282,87
Atxondoko Udala/Ayuntamiento de Atxondo	GELTOKI ZAHARRA BIRGAITU (LANAK 2007)	3.644,02
Azpeitiako Udala/Ayuntamiento de Azpeitia	URRESTILLAN GAZTE EKINTZETARAKO LOKALAK EGOKITU (LANAK 2007)	7.451,61
Elburgo/Burgeluko Udala/Ayuntamiento de Elburgo/Burgelu	ELBURGOKO ERABILERA ANITZETARAKO LANDEDERRA KIROLDEGIA (LANAK 2007)	62.538,85
Elgoibarko Udala/Ayuntamiento de Elgoibar	GAZTELEKUA EGOKITU (LANAK 2007)	62.699,83
Elgoibarko Udala/Ayuntamiento de Elgoibar	GAZTELEKUA EGOKITU (MATERIALAK 2007)	12.548,79
Elorrioko Udala/Ayuntamiento de Elorrio	GAZTETXEKO LANAK (LANAK 2007)	5.056,66
Galdameseko Udala/Ayuntamiento de Galdames	GAZTEENTZAKO EKIPAMENDUA - TXABARRI (MATERIALAK 2007)	12.285,93
Ibarrangeluko Udala/Ayuntamiento de Ibarrangelu	BUSTURIALDEKO HERRI TXIKIEN GAZTE PLANAREN EZARPENA. GAZTEENTZAKO EKIPAMENDUEN HOBEKUNTZA /MATERIALAK 2007)	653,42
Kortezubiko Udala/Ayuntamiento de Kortezubi	GAZTEENTZAKO EKIPAMENDUEN HOBEKUNTZA (MATERIALAK 2007)	1.902,23
Leioako	SAN BARTOLOMEKO KULTUR ETXEA (LANAK	37.935,48

Udala/Ayuntamiento de Leioa	2007)	
Lekeitioko Udala/Ayuntamiento de Lekeitio	LEKEITIOKO GAZTEGUNEAK (LANAK 2007)	191.612,90
Loiuko Udala/Ayuntamiento de Loiu	LOIUKO GAZTEGUNEAK (/MATERIALAK 2007)	1.135,48
Nabarnizeko Udala/Ayuntamiento de Nabarniz	NABARNIZKO GAZTEENTZAKO EKIPAMENDUEN HOBEKUNTZA (MATERIALAK 2007)	859,04
Otxandioko Udala/Ayuntamiento de Otxandio	OTXANDIOKO GAZTETXEA EGOKITZEKO EXEKUZIOA (LANAK 2007)	18.877,42
Otxandioko Udala/Ayuntamiento de Otxandio	OTXANDIOKO GAZTETXEA EGOKITZEKO EXEKUZIOA (LANAK 2008)	13.548,39
Otxandioko Udala/Ayuntamiento de Otxandio	OTXANDIOKO GAZTETXEA EGOKITZEKO EXEKUZIOA (LANAK 2009)	33.671,81
Santurtziko Udala/Ayuntamiento de Santurtzi	GAZTEBOX GAZTEENTZAKO INFORMAZIO-BULEGOA (MATERIALAK 2007)	8.215,07
Ugao-Miraballeseko Udala/Ayuntamiento de Ugao-Miraballes	GAZTEENTZAKO INFORMAZIOGUNEAK BIRKOKATU (LANAK 2007)	729,02
Guztira		501.551,80 €

GAZTEEN EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN LANTZE-PROZESUA

2006ko ekitaldian ekin zitzaion prozesuari, eta fase horretan landutako zirriborroa, barneko lehendabiziko tramiteak bete ondoren, lehenik eta behin Eusko Jaurlaritzako sailek aztertu zuten 2007ko apirila eta uztaila bitartean, haren edukiak zeharkako izaera baitu. Aldi berean, 2007ko maiatzean, **kontsulta-fasea** jarri zen abian, eta hiru foru-aldundiei, udalei eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari (EGK) galdetu zitzairen. Lehendabizi, bilera hauek egin ziren zirriborroaren edukia jakinarazteko:

- Arabako Foru Aldundiarekin, 2007ko maiatzaren 9an
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin (EGK), 2007ko maiatzaren 10ean
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin, 2007ko maiatzaren 11n
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, 2007ko ekainaren 8an
- EUDELa zirriborroa bidali (haiek hala egitea eskatuta), 2007ko uztailaren 20an

Ondoren, Gazteria Zuzendaritzak baterako lan-faseari ekin zion eta erakundeekin harremanetan jarri zen. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin (EGK) 2007ko ekainaren 14an eta 22an eta uztailaren 26an egin zituen bilerak. Bestalde, foru-aldundi bakoitzarekin lehendabiziko bilera hura egin ostean, 2007ko udal- eta foru-hauteskundeak pasa ondoren bigarren kontsulta egitea eskatu zen; izan ere, aldundietako gazteria-alorreko arduradun berriek, bai eta EUDELen bidez udaletakoek ere, prozesuan parte hartzea nahi zen. Horrenbestez, hasiera batean aurreikusita zegoen egutegia aldatu ondoren, bigarren kontsulta-txanda egin zuten.

- Bilera Arabako Foru Aldundiarekin, 2007ko irailaren 19an
- Bilera Bizkaiko Foru Aldundiarekin, 2007ko irailaren 19an
- Bilera Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, 2007ko urriaren 2an

- Bilera EUDELekin, 2007ko irailaren 25ean.

Horiez gain, hiru foru-aldundiak bilduta baterako lan-bilerak egin dira, urriaren 30ean eta azaroaren 12an, 19an eta 21ean.

Gero, urrian eta azaroan **entzunaldi-fasea** jarri zen abian foru-aldundientzat, udalentsat, EUDELentzat eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarentzat (EGK).

Kontsulta- eta entzunaldi-tramiteak bete ostean, zirriborroaren edukia aurkeztu zen; lehendabizi, Eusko Jaurlaritzako Gazteriaren Batzorde Teknikoari aurkeztu zitzaion, 2007ko abenduaren 14an, eta, gero, **Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeari**, 2007ko abenduaren 20an izandako bileran.

FORU-ALDUNDIAK

Gazte Planaren Idazkaritzan, dokumentuaren amaiera-datarako, foru-aldundi bakar batek ere ez du aurkeztu 2007. urteko ebaluazioari buruzko jakinarazpenik.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

2007ko ekitaldian Arabako Foru Aldundiak emandako **diru-laguntzak, Gazte Plana toki-erakundeetan bultzatzeko:**

	Emandakoa
Alegria-Dulantziko Udala	12.210
Aguraingo Udala	10.175
Gasteizko Udala	10.000
Kanpezuko Udala	8.140
Legutioko Udala	14.245
Iruña Okako Udala	12.210
GUZTIRA	66.980 €

HIRIBURUETAKO UDALAK

Gazte Planaren Idazkaritzan, dokumentuaren amaiera-datarako, hiriburueta-ko udal bakar batek ere ez du aurkeztu 2007. urteko ebaluazioari buruzko jakinarazpenik.

**EUSKO JAURLARITZAREN 2007KO EKITALDIKO
EKINTZA POSITIBOKO KONPROMISOEN LABURPENA**

2007. URTERAKO PROGRAMATUTAKO EKINTZA POSITIBOAK (Aurrekontua eta ekintza-kopurua)

Arlo bakoitzeko guztizkoa

Arloa: 0 BALIOAK ETA GAZTE-INDARKERIA	5.241.610,00 € 25 ekintza
Arloa: 1 LANA ETA LANERATZEA	14.574.994,00 € 21 ekintza
Arloa: 2 HEZKUNTZA ETA LANERAKO PRESTAKUNTZA	29.266.046,00 € 22 ekintza
Arloa: 3 ETXEBIZITZA	41.143.000,00 € 5 ekintza
Arloa: 4 OSASUNA ETA GIZARTE-EKINTZA	56.819.714,74 € 28 ekintza
Arloa: 5 GAZTEEN AISIA ETA KULTURA	16.137.789,00 € 49 ekintza
<i>Eusko Jaurlaritzak guztira</i>	163.183.153,74 € 150 ekintza

EKINTZA POSITIBOEN BETETZE-MAILA - 2007 (Egindako gastua eta ekintza-kopurua)

Arlo bakoitzeko guztizkoa

Arloa: 0 BALIOAK ETA GAZTE-INDARKERIA	4.447.027,19 € 25 ekintza
Arloa: 1 LANA ETA LANERATZEA	8.484.760,72 € 22 ekintza
Arloa: 2 HEZKUNTZA ETA LANERAKO PRESTAKUNTZA	27.529.279,02 € 21 ekintza
Arloa: 3 ETXEBIZITZA	34.837.720,00 € 6 ekintza
Arloa: 4 OSASUNA ETA GIZARTE-EKINTZA	50.918.329,87 € 28 ekintza
Arloa: 5 GAZTEEN AISIA ETA KULTURA	14.282.870,04 € 52 ekintza

EJ Guztira **140.499.986,84 €**

**2007KO EKITALDIKO EKINTZA POSITIBOEN
ZERRENDAA, EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN
ARABERA ANTOLATUTA**

EUSKO JAURLARITZA

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritza

5.4.2 Euskal administrazio publikoak gazteei buruzko gaiak eztabaidatu eta erabakitzen diren foro europarretan izatea, zer estrategia ari diren jarraitzen jakiteko, batetik, eta gure esperientzia azaldu ahal izateko, bestetik.

* *Bidaia kulturalak: Euskadiko kultura-eragileek bidaia kulturalak egitea euskal etxeak dauden hirietara* 96.820,00 €

* *Euskadin 15 egunez egoteko "Gaztemundu" programa: Euskadik, euskal gizarteak eta euskal instituzioek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden euskaldun-taldeekin eta euskal etxeekin duten harremana bultzatzea, sendotzea eta indartzea du helburu.* 98.880,00 €

* *Kanpoan dauden euskaldun-taldeekin lotutako gaietan espezializatzeko bekak.* 49.175,00 €

5.5.1 Laguntza gehiago ematea (azpiegiturak, baliabide materialak, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak) gazteen jarduerak prestatzeko, sortzeko, ekoizteko, zabaltzeko eta banatzeko.

* *Boiseko Ikastola: Euskaditik kanpo diharduen ikastola bakarraren gastuak ordaintzeko zuzeneko diru-laguntza.* 27.810,00 €

Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza

5.4.2 Euskal administrazio publikoak gazteei buruzko gaiak eztabaidatu eta erabakitzen diren foro europarretan izatea, zer estrategia ari diren jarraitzen jakiteko, batetik, eta gure esperientzia azaldu ahal izateko, bestetik.

* *Profesionalak kanpo-harremanen arloan espezializatzeko bekak. Kanpo-harremanen arloan prestatu eta espezializatu ahal izatea bultzatzea, bai EJK Mexikon, Txilen, Argentinan, Venezuelan eta Ameriketako Estatu Batuetan dituen ordezkaritzetan, bai Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian bertan.* 81.499,00 €

Europako Gaietarako Zuzendaritza

5.4.2 Euskal administrazio publikoak gazteei buruzko gaiak eztabaidatu eta erabakitzen diren foro europarretan izatea, zer estrategia ari diren jarraitzen jakiteko, batetik, eta gure esperientzia azaldu ahal izateko, bestetik.

* *Europako gaietan interesa duten gazte euskaldunek Eskualdeetako Lantaldean parte hartzea.* 14.025,00 €

* *Europar Batasunaren gazte-politika Euskadira hurbiltzea.* 174.905,00 €

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza

0.3.10 Hezkuntza-komunitatean elkarriktarako foro eta esparruak sustatzea, gatazkak konpondu eta indarkeria gaitzesteko.

* Hezkuntza-komunitatean elkarriktarako foro eta esparruak sustatzea, gatazkak konpondu eta indarkeria gaitzesteko. 102.674,00 €

0.3.12 Bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzan erabili ahal izateko ikasmateriala sortzeko laguntzak.

* Ikasmateriala sortzea. 49.690,00 €

0.3.13 Testuliburuari emandako baimenak berrikusten jarraitzea, indarkeriaren larritasuna ez erlatibizatze.

* Testuliburuari emandako baimenak berrikustea. 0,00 €
Ez da gastu espezifikorik egin.

0.3.7 Irakasleak bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzan trebatzeko plana.

* - Irakasleak bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzan trebatzea. 44.600,00 €
- Gatazkak konpontzeari buruzko ikastaroak.
- Gatazken eraldaketari buruzko mintegiak.

2.1.1 Hezkuntza-zentruen eta enpresen arteko kolaborazio-hitzarmenak bultzatzea, enpresetara ikustaldiak egiteko asmoz ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzarako hitzarmenak bultzatzea, lantokietara egindako ikustaldiak antolatze.

* Industria etorkizunera hurbiltzea. 0,00 €

2.1.2 Ikastetxeetan informazio-zerbitzuak eta lanbide-orientaziorako zerbitzuak sustatzea, eta gazteei beren heziketa-ibilbidea hautatzeko eta enplegua bilatzeko aholkuak ematea.

* Lanbide-hastapeneko programak, Gizarte-bermeko programen barruan daudenak, 16-21 urteko gazteentzat. 12.754.053,00 €

* - Ikastetxetara orientatzaileak bidaltzeko prozesua garatzea eta osatzea. EZ DAGO EGINDAKO GASTUARI BURUZKO DATURIK.
- Arduradunen prestakuntza hobetzea.
- Baliabide materialak sortzea.

2.1.6 Gazteen prestakuntza-maila hobetzea, Informazioaren Teknologia Berriei (ITB) buruz duten ezagutza handituz eta enplegurako prestakuntzan eleaniztasuna sartuz.

* - Irakasleen prestakuntza handitzea. 428.678,00 €
- Materialak sortzea.
- Ikasketa-eremu guztietan informatika aplikatzea Berritzegunetik.

2.4.1 Ikastetxeetan balioetan oinarritutako hezkuntza emateko beharrezkoa den curriculum-materiala prestatzea, eta foro bat sortzea balioei buruz hitz egiteko.

* - Bilerak antolatzea, ikastetxeko bizikidetzari buruzko jarraibide egokiak trukatzeko eta ezagutzeko . 212.800,00 €
- Bizikidetzari buruzko mintegiak egitea guneka.
- Bizikidetzari buruzko mintegiak egitea guneka.

2.4.2 Eskolako eta eskolatik kanpoko jarduera guztietan balioetan hezteia sustatzea, eta ikastetxearen urteko planean hezkuntza-mota hori sartzeko jarraibideak ezartzea.

- * - Gaiarekin lotutako proiektuak bultzatzea ikastetxeetan. 1.281.755,00 €
- Irakasleei aholkuak ematea.
- Irakasleak prestatzea.

2.4.3 Irakasleek eta ikasleek gatazkak hitz eginez eta parte hartuz konpontzen ikas dezaten esperientziak bultzatzea, bizikidetzarako tresna mesedegarria baita.

- * - Ikasketa-komunitateen proiektuak bultzatzea. 129.600,00 €
- Ikasketa-komunitateei buruzko sentsibilizazioa hastea.
- Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleek eta ikasleek lan-mintegiak egitea ikasketa-komunitateei buruz.

2.4.5 Ikastetxeetan gizarte-eredu europarraren balioei eta oinarrii buruzko ezagutza eta hausnarketa sustatzea, eta gazteak globalizazio-prozesuetara hurbiltzea.

- * - Ikasleak atzerrira joateko bekak. EZ DAGO EGINDAKO GASTUARI BURUZKO DATURIK
- Ikastetxeen arteko trukeak eta alde anitzeko topaketak.
- Europako programak: Sokrates programa eta beste batzuk.

2.4.6 Ikastetxeetan demokraziaren, tolerantziaren, bakearen eta askatasunaren balioak sustatzea, sentsibilizazio-kanpainen eta gatazkak konpontzeko programen bidez, indarkeriazko portaerei eta jarrerai aurre egiteko.

- * - Ijitoen kulturari buruzko CDa euskarara itzultzea. EZ DAGO EGINDAKO GASTUARI BURUZKO DATURIK
- Irakasleei CDa erabiltzeko prestakuntza ematea.
- Ikasle ijitoak Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzeari buruzko lana.

2.5.3 Ikastetxearen curriculum-proiektuan hurbileko nahiz Europako ingurune soziokulturalaren errealitatea sartu ahal izan dadin sustatzea eta erraztea.

- * - ICPn sartzeko orientatzea. 26.000,00 €
- Europako programak.
- Europa osorako plana.

2.6.1 Ikasleek ikastetxeetan parte hartzeko dituzten moduak landuko dituzten direktibak egin eta zabaltzea.

- * - Zuzendarien akreditaziorako prestakuntza-jardueren deialdia. 6.975,00 €
- Orientatzaileekin mintegiak egitea zonaka.
- Orientazio-jardunaldiak.

2.7.2 Ikastetxeak emigrazioaren errealitatera egokitzea, eta, horretarako, baliabide egokiez hornitzea.

- * - Ikasle etorkinen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak jartzea. 2.139.000,00 €
- Irakasleak prestatzea.
- Esperientziak garatzea.

4.1.4 Ikastetxeetan eta unibertsitatean osasun-hezkuntza sustatzea.

- * - Berrikuntza-proiektuak garatzea. 86.980,00 €
- Irakasleak prestatzea eta aholkuak ematea.
- Materialak sortzea.

- * Drogenmenpekotasunen Hiru Urteko Planean jasota dauden programak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeakoa. 4.457.706,78 €

Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza

2.2.1 Irakaskuntza ez-arautuan eskaintzen diren lanerako prestakuntzako programen eta praktika-programen erakundeen arteko koordinazioa sustatzea.

- * - Ikasleek prestakuntza arautua amaitzean prestakuntza-prozesuetan parte hartzen jarrai dezaten bultzatzea. 2.937.504,86 €
- Bizitza osoan ikasten jarraitzeko kultura zabaldu eta bultzatzeko publizitate-kanpaina.

2.4.5 Ikastetxeetan gizarte-eredu europarraren balioei eta oinarriei buruzko ezagutza eta hausnarketa sustatzea, eta gazteak globalizazio-prozesuetara hurbiltzea.

- * Ikastetxeak Leonardo Da Vinci Lanbide Heziketako programa europarrean parte hartzera bultzatzea. 775.420,00 €

Lanbide Heziketako Zuzendaritza

1.3.2 Lanbide-orientazioaren gida komuna egitea, gazteei lana sortzeko eta bilatzeko behar dituzten arreta eta aholkuak eman ahal izatea errazteko, eta lana bilatzeko jarrera aktiboagoa bultzatzeko.

- * Bi gida sortzea, DBH eta batxilergoko ikasleen artean Lanbide Heziketa zabaltzeko: 1.- Lanbide Heziketako Gida "Lanbide Heziketa: lanerako bidea" (ekaina), 2.- Lanbide Heziketan sartzeko gida (abendua). 186.411,00 €

2.1.5 Lanbide Heziketari prestigioa ematea eta gazteak Lanbide Heziketara erakartzea helburu duten planak sustatzea.

- * Erakustazoka: Lanbide Heziketako V. Nazioarteko Kongresua, malgutasunari eta aldaketara egokitzeari buruzkoa. Lanbide Heziketari merezi duen onespina emateko ekitaldia, kudeaketa bikaina egiten duelako. 270.386,00 €

- * 1.-Lanbide Heziketako ikasleek prestakuntza-moduluak lantokietan egin ahal izan ditzaten ikasle horiek hartzen dituzten enpresentzako laguntzak (enpresetako praktikak) 2.430.213,00 €

2.-"Ikasi eta Lan" programa.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari dagokio "Ikasi eta Lan" programaren gastua.

HERRIZAINGO SAILA

Trafiko Zuzendaritza

4.1.2 **Prebentzio-jarduera bat garatzea, gazteen osasun-arazo nagusiei aurre egiteko (zirkulazio-istripuak, mendekotasuna sortzen duten jarrerak, hiesa, sexu-transmisiozko gaixotasunak, gogoz kontrako haurdunaldiak, elikadura-arazoak eta buruko arazoak).**

* 2007. urtean zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren gainean eginiko jarduerak "Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa 2007-2010" urte anitzeko plan gidariaren barruan sartuko dira. Plan horretan, bereziki gazteez eta nerabeez arduratzen diren zenbait jarduera-ildo daude. 500.000,00 €
500.000 € baino gehiagoko gastua egin da.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

0.4.3 **Kanpainak egitea biktimei elkartasuna adierazteko, eta gazte-indarkeriaren arazoari buruz sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko.**

* Terrorismoaren biktimak integratzeko eta haiei babesa emateko jarduerak, baita haien arazoaz sentsibilizatzekoak ere. 398.978,11 €
Aurrekontu-saila handitu da eta 400.000 eurokoa da.

Segurtasun Sailburuordearen Kabinetea

2.4.4 **"Gazteak eta indarkeria" gaiari buruzko azterketak egitea, gero esku-hartze ildoak ezartzeko.**

* Urtero txosten bat egitea gazteen kriminalitateari buruz, Ertzaintzaren estatistikak erabilia. Ez du gastu espezifikorik.

Ertzaintzaren Zuzendaritza

0.4.4 **Euskal erakunde eskudunen konpromisoa, ETAren terrorismoaren aldekoak diren eta demokrazia mehatxatu edo horren aurkakoak diren pankartak, pintadak eta paskinak kentzeko.**

* Pankartak eta kartelak kentzea, haietan jartzen duena delitua izan badaiteke edo zigor administratibo bat jasotzeko arrazoi izan badaiteke.

Era horretako pintadaren bat egonez gero, dagokion udalari jakinaraziko zaio, lehenbailehen ken dezan.

Gastu orokorren banean dago; izan ere, ekintza hau polizia-lanaren zati da, eta ez du aurrekontu-sail espezifikorik.

2.7.1 **Gazte Justiziaren Zerbitzua sustatzea, arauak hausten dituzten gazteentzako hezkuntza-arreta koordinatu eta indartzeko.**

* Gazte Justiziaren Zerbitzuarekin elkarlanean aritzea, zerbitzu horrek hala eskatzen duenean.
Gastu orokorren banean dago; izan ere, ekintza hau polizia-lanaren zati da, eta ez du aurrekontu-sail espezifikorik.

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Turismo Sailburuordetza

1.4.6 Arrisku-kapitalaren funtsa kudeatzea, gazteek teknologia berrieekin eta informazioaren gizartearekin lotutako enpresak martxan jar ditzaten, edota bestelako enpresak sor ditzaten.

* *Ekintzaileak izeneko Programa, enpresa-ekimenak sortzen dituzten gazte ekintzaileentzat.* 898.200,00 €

2.1.1 Ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzak-hitzarmenak bultzatzea, lantokietara egindako ikustaldiak antolatzeke.

* *Ikastetxeetako DBHko ikasleek lantokietara (enpresetara) ikustaldiak egitea.* 46.586,00 €

2.2.1 Irakaskuntza ez-arautuan eskaintzen diren lanerako prestakuntzako programen eta praktika-programen erakundeen arteko koordinazioa sustatzea.

* *Internalizazioaren alorrean prestatzeko bekak; enpresetan praktikak egitea ere sartzen da.* 481.672,00 €

* *Merkataritza-sektorea hobeto ezagutzeko bekak; urte bat baino gehiago irauten dute eta ikasketaren zati handi bat praktikoa da.* 255.000,00 €

4.1.2 Prebentzio-jarduera bat garatzea, gazteen osasun-arazo nagusiei aurre egiteko (zirkulazio-istripuak, mendekotasuna sortzen duten jarrerak, hiesa, sexu-transmisiozko gaixotasunak, gogoz kontrako haurdunaldiak, elikadura-arazoak eta buruko arazoak).

* *Sentsibilizatzeko, informatzeko eta babesa emateko programak egitea enpresetan eta lantokietan, droga-mendekotasuna prebenitzeko edo gutxitzeko.* 24.000,00 €

1.3.4 Industria-gaietan, Leihatila Bakarra gazteriarentzat.

* *Instituzioek ematen dituzten laguntza guztiei buruzko informazioa saretik eskuratu ahal izateko aukera ematen duen leihatila eguneratzea.*

Ez du gastu espezifikorik, komunikazio-gastuak ez dira konputagarriak eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuari (HAZ) atxikitako pertsonalaren gastuak arreta zuzenari dagozkio.

1.3.4 Industria-gaietan, Leihatila Bakarra gazteriarentzat.

* *HAZ (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua) birmoldatu egin da, eta, orain, eskaintzen dituen zerbitzuetan gazteak ere kontuan hartzen ditu. Ekimen ekintzaileak dituzten gazteentzako zerbitzu berezi bat eskaintzen du, gazte bakoitzari jakinarazteko zer laguntza jaso ditzakeen instituzioetatik bere ekimena...*

Ez du gastu espezifikorik. Komunikazio-gastuak ez dira konputagarriak eta pertsonalaren gastuak arreta zuzenari dagozkio.

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

EGAILAN/LANBIDE

1.3.1 Datu-base batean jasotzea aurkeztu diren gazteen curriculumei buruzko informazioa, enpresen lan-eskaera, eta lanpostu berriak; datu-basea sarea osatzen duten kide guztiek erabiliko dute bide telematikoen bidez.

* - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren datu-basearen mantentze-lanak: curriculumak eta enpresen eskaintzak izeneko datu-basearen mantentze-lanak.

-LANBIDE.NET enplegu-atariaren mantentze-lanak

Ez du gastu espezifikorik.

Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza

2.5.2 Eskola-ordutegitik eta/edo -egutegitik kanpo, ikastetxeak, kirol-guneak eta beste gune batzuk irekitzea, ikasi edo kontsultak egin ahal izateko, bai eta beste zenbait kultura-jardueratarako ere.

* "Justizianet"en barruan, gazteentzako justiziaren gunea izaten jarraitzea, eta gune horretan justizia- administrazioari buruzko ikus-entzunezko informazioa sartzeko, bai eta euskaraz nahiz gaztelaniaz grabatuko epaiketa sinple batzuen antzezpena ikusi ahal izatea ere.

20.000,00 €

2.5.3 Ikastetxearen curriculum-proiektuan hurbileko nahiz Europako ingurune soziokulturalaren errealitatea sartu ahal izan dadin sustatzea eta erraztea.

* Ikastetxeetatik bisitaldi gidatuak antolatzea Euskadiko eraikin judizialek, eta Justizia-administrazioari buruzko unitate didaktiko bat egitea, gero ikastetxeetan banatzeko.

12.000,00 €

Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza

4.3.1 Nerabe eta gazte arau-hausleekin, gizartearen onurarako bitartekaritza-, adiskidetze- eta konpontze-programak sustatzea, tratamendu anbulatorioa ematea, gizarte- eta hezkuntza-lanak sustatzea, etab.

* Ingurune irekiko neurriak bultzatzea (eguneko egoitza, zaintzapeko askatasuna, gizarte- eta hezkuntza-lanak), zentro batean itxita egiten duten aldia laburtu ahal izateko.

1.124.448,00 €

"Adingabeak ingurune irekian edukitzeko xedapen judizialak gauzatzea".

* Erakunde publiko eta pribatuekin hitzarmenak sinatzea, Gizartearen Onurarako Zerbitzuak eta Zeharkako Konponketak izeneko neurria bultzatzeko.

35.000,00 €

"EUDEL, gizartearen onurako zerbitzuak".

* Gazte Justiziaren Sistemak gazteak berriz hezten egiten duen lana zabaltzea.

449.280,00 €

"Bizkaiko Eguneke Zentroa".

Giza Eskubideen Zuzendaritza

0.1.4 Eusko Jaurlaritzako sailen arteko mahai bat osatzea. Mahai horrek, Partenariatuak "Bakerako hezkuntza, eskolan eta eskolatik kanpo" gaiari buruz egindako txostenetik abiatuta, proposamenak egingo ditu Euskadiko gazteen artean bakerako hezkuntza hedatzeko, berritzeko eta orokortzeko.

* Sailen arteko mahaiak proposamenak egitea. Sailen arteko mahaiak eratu ostean, aldiari-aldiari bilerak egitea da xedea, gaiari buruzko akordioetara iristeko.

0,00 €

0.3.8 Ikastetxeetan demokraziaren, tolerantziaren, bakearen eta askatasunaren balioak sustatzea, sentsibilizazio-kanpainen eta gatazkak konpontzeko programen bidez, indarkeriazko portaerei eta jarrerai aurre egiteko.

* Giza eskubideen defentsa eta babesa edota bakearen aldeko jarduerak zabaltzen, hedatzen eta sustatzen dituzten jarduerak egiteko laguntzen deialdi publikoa. Diruz lagunduko dira zenbait programa, baita bakerako hezkuntzari buruzkoak ere.

618.300,00 €

0.4.1 Gizartea sentsibilizatzeko kanpaina; helburua da gazteei ikusaraztea giza eskubideak errespetatzea, indarkeria eza eta justizia bizikidetzaren zutabeak direla.

* *Bakerako hezkuntzari buruzko jarduera-programaren barruko ekimen baten bidez, diru-laguntzak ematea bake-kultura bultzatzen duten eta udalerrian eta eskualdean gatazkak oso-osorik indarkeriarik gabe konpontzeko jarraibideak jartzen dituzten udalei.* 300.000,00 €

Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza

1.3.2 Lanbide-orientazioaren gida komuna egitea, gazteei lana sortzeko eta bilatzeko behar dituzten arreta eta aholkuak eman ahal izatea errazteko, eta lana bilatzeko jarrera aktiboagoa bultzatzeko.

* *Euskal Enplegu Zerbitzuaren "lanbidenet" web orria lan bila ari diren pertsonentzat; lanerako prestakuntza eta orientazioa eskaintzen ditu, bai eta lana bilatzeko teknikak eta tresnak ere.* 0,00 €

1.1.2 Diru-laguntzen ildo bat garatzea, denbora luzez langabezia dauden gazteak praktiketan kontrata ditzaten bultzatzeko.

* *Gazte langabeak kontratatatzeko laguntzak.* 1.006.250,00 €

1.1.3 Gazte langabeak kontratatatzeko diru-laguntzak ematea.

* *Lan-merkatura sartzeko arazo gehien dituzten taldeetako gazteak aldi baterako kontrata ditzaten bultzatzea.* 51.250,00 €

1.2.2 Aparteko orduak kenduz edo jardunaldia murriztuz gazteentzako enplegua sortzen duten enpresei laguntzak ematea.

* *Lan-denbora banatzeko laguntzak ematea.* 14.087,00 €

1.2.4 Lana banatzea helburu duten neurriak (ordezkapen-kontratua eta beste neurri batzuk) berrikustea, garatzea eta jakinaraztea.

* *Laguntzak ematea erretiro-adinetik gertu dauden langileak lanetik erretiratzearen ondorioz gizarte-ekonomiako enpresetan eginiko kontratazio berriei.* 30.000,00 €

* *Laguntzak ematea erretiro-adinetik gertu dauden langileak lanetik erretiratzearen ondorioz eginiko kontratazio berriei.* 518.685,00 €

1.4.2 Gazteen autoenplegua sustatzeko laguntzak ematea.

* *Gazteek beren lana sor dezatela sustatzeko laguntzak ematea.* 1.752.000,00 €

1.5.2 Gazteen enpleguaren kalitateari buruzko araudia (kontratazioa, laneko segurtasuna eta osasuna...) egiteko irizpideak eta balioak adostea.

* *Enpleguaren Legea egitea. Ez du gastu espezifikorik.*

1.5.6 Gazteei kontratatu mugagabeak egiteko laguntzak.

* *Gazte langabeei kontratatu mugagabeak egitea bultzatzea.* 555.000,00 €

1.3.3 Langabeei ematen zaien laguntza pertsonalizatua indartzea orientazio-zerbitzuen bidez, lan merkatu sartzu ahal izan daitezen; orientazio-zerbitzuek gazte langabea hartu beharko dute, eta haren ibilbidearen jarraipen osoa egin beharko dute.

* *Lana bilatzeko moduen planifikazioa sustatzea, eta, horretarako, helburu profesionala finkatzea eta prestakuntza-jarduerak egitea Lanbideren bidez lana errazago aurkitu ahal izateko.* 2.111.396,17 €

2.2.1 Irakaskuntza ez-arautuan eskaintzen diren lanerako prestakuntzako programen eta praktika-programen erakundeen arteko koordinazioa sustatzea.

* *Enpresetan praktikak egitea sustatzea, lan-esperientzia izan dezaten.* 880.346,80 €

2.2.2 Hurrengo lau urteetan, gazte langabe guzti-guztiei enpleguko, prestakuntzako, birziklatzeko, lan-praktiketako edo aldi baterako gizarte-laneko kontratuko esperientziaren bat eskaintzea (legealdian zehar, urtean % 25i, hain zuzen ere).

* *Prestakuntza profesionala sustatzea, lana aurkitzeko aukera gehiago izan dezaten.* 4.490.864,36 €

2.3.1 Sentsibilizazio orokorreko kanpainak egitea etorkinek lanerako prestatzeko eta lan duina izateko duten eskubideari buruz.

* *Etorkinei bestelako zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakunde bidez (esaterako, CEAR, Caritas, Sartzu Federazioa...), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak etorkinei ematen dizkien zerbitzuak jakinarazten zaizkie. Egoera arautu ez duten etorkinek ere jo dezakete zerbitzu horietara.* 0,00 €

Ez dago diru-kantitate espezifikorik. Lanbideren lankidetzaz-esparru orokorraren barruan dago.

Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza**1.1.5 Gazte langabeei gizarte-ekonomiako enpresetan bazkide gisa sartzeko laguntza ematea, eta, horretarako, enpresaren kapital sozialari nahitaez egin behar dioten ekarpena finantzatzen laguntzea.**

* *Pertsona langabeei gizarte-ekonomiako enpresetan sartzen laguntzea.* 26.084,55 €

1.4.1 Gazteen artean enpresa-bokazioak piztea helburu duten proiektuak koordinatzea.

* *Enplegu-sorgune berrietan gizarte-ekonomiako enpresak martxan jartzeko laguntzak ematea.* 205.397,00 €

Gizarteratze Zuzendaritza**4.3.4 Gizartean desabantailan dauden 16 urtetik gorako gazteak heldutasunera igarotzeko programak sortu eta sustatzea**

* *30 urtetik beherako gazteek oinarritzko errenta jasotzea.* 27.990.000,00 €

* *18 urte baino gehiago dituzten gazteentzako Gizarte-larrialdietako Laguntzak (GLL) ematea.*

EZ DAGO EGINDAKO GASTUARI BURUZKO DATURIK

OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

1.5.4 Heriotza-istripuak eta istripu larriak ikertzerakoan, adinaren eta kontratuaren behin-behinekotasunaren faktoreak istripuak gertatzeko arrazoi gisa sartzea.

* Osalanek lan-istripuei buruzko ikerketak egiterakoan, heriotza dakarten istripuak, istripu oso larriak eta larriak ikertzerakoan "Laneko istripuak ikertzeko eskuliburua" izenekoak ezarritakoari jarraiki, eta "Laneko istripuak ikertzeko dokumentua" izenekoaren bitartez, "Istripua izan duen langilearen datuak" atalean zenbait datu biltzen dira... 0,00 €

OSASUN SAILA

Zerbitzu eta Araubide Ekonomikoko Zuzendaritza

4.1.1 Gazteen osasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko baliabideen gida interaktiboa sortzea.

* Osasun-ataria webean. 77.053,00 €

Osakidetza

4.1.1 Gazteen osasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko baliabideen gida interaktiboa sortzea.

* Gidak, liburuxkak eta ikasmaterial interaktiboa egitea GIB-hiesa eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuk prebenitzeko. 12.500,00 €

4.1.2 Prebentzio-jarduera bat garatzea, gazteen osasun-arazo nagusiei aurre egiteko (zirkulazio-istripuak, mendekotasuna sortzen duten jarrerak, hiesa, sexu-transmisiozko gaixotasunak, gogoz kontrako haurdunaldiak, elikadura-arazoak eta buruko arazoak).

* 16-17 urteko nerabe eskolatuen artean GIB-hiesa prebenitzea, ikasgelan esku hartzearen bidez. 26.000,00 €

* Farmazietan, hiesaren aurkako elkarteetan eta espetxeetan xiringak aldatzeko eta hiesaren aurkako kita banatzeko programa. 171.000,00 €

* Hiesaren aurka borroka egiten duten elkarteei diruz laguntzea. 298.480,00 €

* Emakumeari arreta emateko programa, sexu-heziketari, familia-plangintzari eta sexu-transmisiozko gaixotasunei buruz dituzten eskariei erantzuteko lehen mailako osasun-arretako zentroetatik. 339.246,42 €

4.1.6 Osasun-zerbitzuak gazteen beharretara eta ezaugarrietara hurbiltzea eta egokitzea.

* Jateko ohiturekin sortutako arazoei tratamendu espezifiko emateko programa. 219.746,00 €

* Haurren eta gazteen ospitaleratze psikiatrikorako unitateak. 4.438.006,00 €

* Toxikomaniaren ondorio diren arazoak dituzten gazteei laguntzea: toxikomaniak tratatzea drogarik gabeko programen bidez, metadonaz mantentzeko programen bidez eta tarteko helburuak dituzten programen bidez. 8.601.398,00 €

Osasun Sailburuordetza

4.1.1 Gazteen osasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko baliabideen gida elkarreragilea sortzea.

* Tabakismoa prebenitzeko eta gutxitzeko plana; informatzeko materialak eta gidak egitea. 40.000,00 €

4.1.2 Prebentzio-jarduera bat garatzea, gazteen osasun-arazo nagusiei aurre egiteko (zirkulazio-istripuak, mendekotasuna sortzen duten jarrerak, hiesa, sexu-transmisiozko gaixotasunak, gogoz kontrako haurdunaldiak, elikadura-arazoak eta buruko arazoak).

* *Tabakismoa prebenitzeko, kontrolatzeko eta gutxitzeko plana: ekintzak egitea erretzen ez dutenei babesa emateko eta erre gabe jarrai dezaten lortzeko, eta erretzeari utzi nahi diotenek laguntza eta babesa izateko.* 130.000,00 €

4.1.4 Ikastetxeetan eta unibertsitatean osasun-hezkuntza sustatzea.

* *Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei deialdia egitea, osasun-hezkuntzan eta -sustapenean oinarritutako hezkuntza-berrikuntzarako proiektuak aurkez ditzaten (OSHBPak).* 79.602,00 €

Osasun Publikoko Zuzendaritza

4.1.6 Osasun-zerbitzuak gazteen beharretara eta ezaugarrietara hurbiltzea eta egokitzea.

* *Nerabeei eta gazteei B hepatitisaren eta tetanos-difteriaren aurkako txertoak jartzea.* 397.145,00 €

* *Komunitate terapeutiko itundu gabeetan toxikomaniak tratatzeko diru-laguntzak ematea.* 32.850,00 €

KULTURA SAILA

Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

5.5.1 Laguntza gehiago ematea (azpiegiturak, baliabide materialak, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak) gazteen jarduerak prestatzeko, sortzeko, ekoizteko, zabaltzeko eta banatzeko.

* Film laburrak egiteko laguntzak.	160.000,00 €
* Film laburrak hedatzeko "Kimuak" programa.	150.000,00 €
* Arte eszenikoetan profesionalak prestatzeko laguntzak.	150.177,00 € 138.177 € prestakuntza-ikastaro integraletan eta 12.000 € berariazko prestakuntzarako ikastaroetan.
* Koreografiak sortzeko laguntzak.	30.000,00 €
* Enpresa sortu berriek antzezlanak egiteko laguntzak, eta, horretarako, haien antzintasuna finkatzea.	40.000,00 €
* Eredutxo koreografikoa: Dantzan Bilaka.	42.000,00 €
* Euskal Herriko Gazte Orkestra finantzatzea.	257.500,00 €

Kirol Zuzendaritza

5.7.1 Plana sustatu eta garatzeko batzorde kudeatzailea osatzea.

* Kirolaren Euskal Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema bat ezartzea.	0,00 € Gastua 2008ko ekitaldian gauzatuko da.
* Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea dinamizatzea.	12.000,00 €

5.7.2 EAEko gazteriaren kirol-ohiturei eta gazteen kirol-praktikaren joera berriei buruzko diagnostikoa egitea.

* Programa espezifiko bat egitea eta garatzea, emakumeek kirolaren alor guztietan berdintasunezko egoeran parte hartu ahal izateko beharrezko diren baldintzak eta aukerak sortzeko.	22.500,00 €
--	-------------

Aholkularitza-enpresa bat kontratatu da, federazioei aholkularitza-zerbitzua eta laguntza teknikoa emateko eta berdintasunerako planak egiteko prozesua abian jartzeko.

5.7.3 Oinarri nagusi gisa Joko Garbiaren aldeko Konpromiso Gutuna izango duen gizarte-sentsibilizazioko kanpaina bat diseinatu eta garatzea kirol-elkarteentzat, klubentzat, kirol-profesionalentzat eta komunikabideetako profesionalentzat.

* Eskola Kirolaren Liburu Zuria diseinatu eta argitaratzea.	12.000,00 €
* Adingabeko Kirolaria Babesteko Gutuna ezagutarazten jarraitzea.	Ez du gastu espezifikorik.

- * *Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea dinamizatzea.* 59.249,38 €
- * *Dopinaren aurkako Euskal Programa; prestatzeko, prebenitzeko eta kontrolatzeko neurriak.* 96.700,00 €

5.8.1 Kirol-ekipamenduak gazteen egoera eta beharretara egokitzea (ordutegiak eta prezioak).

- * *Kirol-talentuak identifikatzeko programa abian jartzea.* 1.300.000,00 €
Errendimendu handikoekin egindako gastu guztia.

5.8.2 Hurbileko Kirol Ekipamenduen eskaintza handitzea.

- * *Etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariei babesa emateko zerbitzuen sorrera sustatzea eta kirol-errendimendu handiarekin koordinatzea.* 0,00 €
Programa diseinu-fasean dago, 2008an gauzatuko da.

5.8.3 Kirol-aniztasuna sustatzea, diziplina anitzeko eskaintza garatuz.

- * *Euskadiko Unibertsitate arteko Kirol Txapelketak antolatzea, 18 kirol-modalitatez osatuak.* 20.000,00 €

Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza

0.1.1 Gazteen Euskal Behatokiko adituen foroa deitzea, "Euskal gazteen indarkeria" txostenari buruz eztabaidatzeko, eta "Euskadin gazte-indarkeriari aurre egiteko esku-hartze ildoak" izeneko dokumentua egiteko.

- * *Gazteriaren Euskal Behatokiko adituen foroa Eusko Jaurlaritzaren "Bakerako eta Bizikidetzarako Hezte" mahai sektorialeko gizarte-eragileen foroaren bidez bideratuko da. Mahai hori hainbat sailez osaturik egongo da, eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak koordinatuko du.* 0,00 €

0.1.5 Erakundeen arteko Batzorde Tekniko bat antolatu eta abian jartzea, gazte-planaren arloetan gazte-indarkeria lantzen duten ekintzen (2.4.1; 2.4.2; 2.4.3; 2.4.4; 4.3.1) jarraipena egiteko.

- * *Balioetan hezteari eta bake-kulturari buruzko ekintzak aztertzea sailen arteko mahaian.* 0,00 €

0.4.1 Gizarte sentsibilizatzeko kanpaina; helburua da gazteei ikusaraztea giza eskubideak errespetatzea, indarkeria eza eta justizia bizikidetzaren zutabeak direla.

- * *Diru-laguntza izenduna ematea Gernika Gogoratz Fundazioari kultura- eta bake-jardueretarako.* 120.202,00 €
- * *Gazteen artean balioetan hezteko eta bake-kulturako programak egingo dituzten elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia.* 121.308,96 €

0.4.2 Sentsibilizazio-programak eta Estatuko gazteekin eta Europar Batasuneko gazteekin truke kultureko programak egitea, euskal gazteen irudi positiboa zabaltzeko, indarkeriarekin loturarik ez duena.

- * *Europako Batzordearen "Gazteria Programa".* 0,00 €

- * *Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa.* 210.833,85 €

5.1.2 Funtzak sortzea laguntza ekonomikorako, teknikorako, azpiegituretarako, prestakuntzarako eta abarretarako, elkarteak sortzearen aldeko ekimenari babes emateko.

- * *Gazteria eta gizarte-ekintzaren alorreko elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia.* 931.496,52 €
609.896,52 € diru-laguntzak eta 321.600 € EGK:
- * *Gazteriaren Euskal Behatokiaren Bilboko egoitzaren mantentze-kostuak.* 24.050,00 €
- * *Auzolandegiak antolatzea elkarteen eta udalen laguntzarekin.* 240.677,95 €
217.337 + 12.000 + 11343,95 = 240.677,95 €.

5.2.1 Giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatzuz, Gazte Informazio Sarerako telematika bidezko sarrera-guneak zabaltzea, eta informazioa hedatzeko bide berriak sortzea.

- * *Euskadiko Gazte Informazio Zerbitzuaren (EGIZ) euskarri izango den egitura informatikoa aldatzeko bideragarritasuna aztertzea, EAEko zerbitzu ofizial guztientzat berdina den tresna informatikoaren mantentze-lanen eta etengabeko eguneratzearen barruan.* 24.000,00 €
- * *"Gazteak eta Informazioa" topaketa, (otsailaren 14, 15 eta 16an Euskalduna Jauregian); hitzaldiak, eztabaida-mahaiak, esperientziak...* 79.633,00 €
+ 36.000 € 2006ko aurrekontukoak.

5.2.2 Gazte Ataria eta Gazte Aukera (Leihatila Bakarra) sortzea eta haien mantentze-lanak.

- * *Gazte Atariaren eta Leihatila Bakarraren (Gazte Aukera) mantentze-lanak.* 65.810,99 €

5.2.3 Gazte-txartelaren zerbitzuak handitzea.

- * *Gazte-txartelaren kanpainaren mantentze-lanak.* 64.849,79 €
54.874,79 € + 9.975 €.

5.2.5 EAEko gazte-ekipamenduen sarea sendotzea.

- * *Diru-laguntzak toki-erakundeei, gazte-ekipamenduetarako.* 599.384,20 €

5.2.6 Gazteria-zerbitzuen eskuduntzak zehaztea: antolaketa-egitura, eskaini beharreko zerbitzuak, gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko formulak eta diru-hornidura.

- * *Diru-laguntzak toki-erakundeei, gazte-planak eta ekintza zehatzak sustatzeko.* 699.317,89 €
- * *Gazte-politika integraltza buruzko masterra egitea eta diseinatzea, EHUrekin horretarako sinatu den hitzarmenaren bidez; helburua da 2008 ikasturtean abian izatea.* 10.556,00 €
Programa pilotua egitea. Kudeaketaren kontratazioa EHUrekin:
- * *Gazteen Euskal Legearen bidez eta geroago gazteria-zerbitzuen eskuduntzek izango duten garapenaren bidez hauek zehaztea: antolaketa-egitura, eskaini beharreko zerbitzuak eta gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko formulak.* 0,00 €

5.5.5 Gizarte-egoera ahuleneko geografia-eremuei eta giza taldeei ere kultura eskura izateko aukera ematea.

* Etorkinei zerbitzuak ematen dizkieten erakundeekin harremanetan jarrita, etorkin gazteei informazioa ematea aisiarekin eta denbora librearekin lotutako zerbitzu eta baliabideei buruz.

Ez du gastu espezifikorik.

5.6.2 Aisialdiko jardueretan euskararen erabilera sustatzeko administrazioek egiten dituzten diru-laguntzen deialdiak eta kontratuak arautzea.

* Programetan edo jardueretan zehar euskara erabiltzea kontuan hartuko den irizpidea izatea, gazteria eta gizarte-ekintzen alorrean diru-laguntzak ematerakoan.

0,00 €

0.2.3 Gazteen Euskal Behatokiko aldizkako txostena, EAEko gazte-indarkeriari buruzkoa.

* Datuak jasotzea, eta zerikusia duten sailek emandako datu estatistikoekin txosten bat argitaratzea.

Zenbatekoa Behatokiaren gastu orokorretan erantsita dago; 5.1.2. ekintza.

3.2.2 Gazteen behar, eskaera eta tipologiaen aldizkako azterketa bat egitea, etxebizitza-planak egiteko orientagarri izango dena, eta gazteriaren sektore baztertuenak kontuan hartuko dituenak.

* Bi azterketa zientifiko argitaratzea; bata gazteen adierazleei buruzkoa, eta bestea gazteen emantzipazioari buruzkoa.

37.720,00 €

27.800 argitaratzea, 5.000 diseinua eta 5.220 azalak.

4.2.3 Gazteek osasun-gaietan dituzten iritzi eta eskariei buruzko txosten bat egitea.

* Gazteek osasun-gaietan dituzten iritziak eta eskariak jasotzen dituen ikerlan bat argitaratzea.

16.000,00 €

Argitalpena egina dago, jendaurrean aurkeztea eta banatzea falta da.

5.1.2 Funtsak sortzea laguntza ekonomikorako, laguntza teknikorako, azpiegituretarako, prestakuntzarako eta abarretarako, asoziazionismoaren aldeko ekimenari babesa emateko.

* Teknikarientzako eta gazteria-eragileentzako prestakuntza-ikastaroak antolatzea.

76.585,62 €

5.1.3 Gazte-elkarteei aholkuak, prestakuntza eta babesa emateko zerbitzuak sustatzea.

* 5.1.2. ekintzaren barruan dago ekintza hau, Gazteriaren Euskal Behatokiaren bidez.

0,00 €

5.1.6 Babesle izan daitezkeenentzako zerga-pizgarrien sistema zabaltzea.

* Foru-aldundien zerga-pizgarriak zabaltzea Gazteriaren Euskal Behatokiaren bitartez gazteukera.euskadi.net web orrian

0,00 €

5.2.2 Gazte Ataria eta Gazte Aukera (Leihatila Bakarra) sortzea eta haien mantentze-lanak.

* Hobekuntzak Gazteriaren Euskal Behatokiaren web orrian (gazteukera.euskadi.net web orrian ere badago):

Ez du gastu espezifikorik.

1. Aldizkari elektroniko bat martxan jartzea, Gazteriaren Euskal Behatokiko direktorioan agertzen diren gazteria-gaietako teknikari eta profesionalei bidaltzeko.

5.2.4 Gazte-ekipamenduen azterketa egitea, haien tipologia zehazteko, plan bat egiteko, eta kudeaketa-ereduak diseinatzeko gizartearen parte-hartzearekin.

* Euskadiko gazte-ekipamenduen inbentarioan jasotako datuak grabatzea, eta behatokiaren web orrian jartzea, kontsulta egin ahal izateko, edota estatistikak aplikatzeko beste aldagai bat izateko. 0,00 €

5.3.4 Gazteen aisialdi-erabilera eta -denborari buruzko azterketa zientifiko bat egitea.

* Gazteen aisialdiari buruzko datuak biltzea, aztertzea eta ezagutaraztea. 12.000,00 €

* Hainbat ikerketa egitea: 154.532,00 €
 -Bi beka lizentziadun gazteentzat, euskal gazteria iker dezaten.
 -Beste ikerketa zientifiko interesgarri batzuk; 1. gazte gutxituei buruzkoa, 2. Interneten erabilerari buruzkoa, 3. ...

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza

5.6.1 Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea.

* EBPn garatzen ari diren udaletarako diru-laguntza deialdian hainbat esparru lehenetsiko dira. Horien artean, eta bereziki EZ DAGO EBALUAZIO DATURIK
 gazteak kontuan izanik, euskararen familia bidezko transmisioa izeneko ekintzak lehenetsiko dira.

Euskara Sustatzeko Zuzendaritza

5.6.1 Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea.

* Hedabideen deialdian laguntzagai izango dira, besteak beste, haur eta gazteentzako aldizkariak. 5.355.148,00 €

* Euskaingintza deialdian laguntzagai izango dira, besteak beste, haur eta gazteentzako egitasmoak. 1.249.342,00 €

* Hedabideen deialdian laguntzagai izango dira, besteak beste, haur eta gazteentzako aldizkariak. EZ DAGO EBALUAZIO DATURIK

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Etxebizitza Sailburuordetza

3.1.1 Alokairu sozialaren eskaintza publikoa sortzea, eta etxebizitzaren % 25 gutxienez gazteek alokatzeko izatea.

* Alokairu sozialeko etxebizitzak eskaintzea etxebizitza-eskaintza publikoen bidez, eta horietatik kopuru bat 35 urte baino gutxiagoko pertsonentzat gordeko dela ziurtatzea. 25.560.000,00 €

Alokabideri alokairurako emandako diru-laguntzak, guztira, 5,3 milioi € -koak izan dira, eta alokairuko etxebizitzak sustatzeko gainerako diru-laguntzak 7,3 milioi € -koak. Sailaren gastu publikoa, guztira, 41,83 milioi eurokoa da.

3.1.11 Gazteek babes ofizialeko etxebizitzaren promozioen berri izatea erraztea.

* Sailak hedatzen duen informazioaren kalitate-maila hobetzea, teknologia berrien bidez informazio hori eskuratzeko bitarteko gehiago jartzea, eta herritarrek sailak dituen zerbitzuei, antolaketari, eskumenei eta prozedurei buruz gehiago jakin dezaten bultzatzea. 0,00 €

Ez du lotura zuzena duen gasturik,

3.1.7 Etxebizitza hutsak alokairuan jartzea sustatzea, eta etxebizitza horien ehuneko handi bat gazteentzat izango dela bermatzea.

* Etxebizitza Hutsak Mobilizatzeko Plana, etxebizitza horiek alokatu ahal izateko; ehuneko handi bat gazteentzat izango dela bermatuko da, eta jabeek kobratuko dutela eta etxebizitza ez dela hondatuko bermatuko zaie. 6.040.000,00 €

14,38 milioi € adinako gastuak ordaindu dira. Horri esker, bigarren eskuko 3.446 etxebizitza librearen mantentze-lana finantzatu eta/edo horiek alokairuan jarri ahal izan dira. Horietatik, 841 etxebizitza sartu dira 2007an.

3.1.9 Udalentzako diru-laguntzak martxan jartzea, udalek lurzoru-ondareak sor ditzaten etxebizitza babestuak egitea sustatzeko.

* Udalentzako diru-laguntzak martxan jartzea, udalek lurzoru-ondareak sor ditzaten, eta horiek, gero, etxebizitza babestuen promozioetarako erabil daitezten. 0,00 €

Ez da gauzatu. Ez da gasturik sortu eta ez da gai horren inguruan jarduerarik erregistratu.

3.2.1 Etxebizitza-gaietan, autonomia pertsonaleko aukera berriak sustatzea, hezkuntza- eta dibulgazio-ekintzen bitartez.

* Gazteentzako aldi baterako bizitokiei buruzko plan berezia sustatzea.

3.200.000,00 €

Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

4.3.2 Gizarte- eta hezkuntza-alarretan ingurune irekian (kalea, familia...) esku hartzeko programak eta ekipoan sustatzea nerabeentzat eta gazteentzat; esku-hartze hori lurralde batean egingo da, gizarte-eragileekin elkarlanean: sare-lana.

* Haurrentzako eta nerabeentzako larrialdietarako telefono bidezko arreta-zerbitzua sortzea.

40.000,00 €

4.3.4 Gizartean desabantailan dauden 16 urtetik gorako gazteak heldutasunera igarotzeko programak sortu eta sustatzea.

* Garraiorako laguntzak gutxitasun larriak dituzten ikasleentzat.

99.996,07 €

Droga Gaietako Zuzendaritza

4.2.4 Gazteen osasuna zaintzen lan egiten duten erakundeentzat eta GKEentzat parte hartzeko bideak ezartzea.

- * Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko programak egiteko diru-laguntzak. 1.001.680,00 €

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

5.1.2 Funtsak sortzea laguntza ekonomikorako, laguntza teknikorako, azpiegituretarako, prestakuntzarako eta abarretarako, asoziazionismoaren aldeko ekimenari babesa emateko.

- * Euskal lankide boluntarioentzako laguntzak. Laguntza horiek jasotzeko, interesaturik dauden pertsonen herrialde txioren batean egingo den garapen-proiekturen bati lotuta egon beharko dute urtebeterako edo birako. 405.482,34 €

5.1.4 Elkarrekin sarean lan egin ahal izateko eta administrazioek programak batera finantzatu ahal izateko aukera ematea.

- * NBE bekak; Nazio Batuen nazioarteko erakundeek eta haiekin lotutako pertsona juridikoei aukera izango dute EAEko lankide boluntarioei bekak ematea helburu duen diru-laguntza bat jasotzeko. 956.763,36 €

- * Profesionalak garapenerako lankidetzaren arloan espezializatzeko bekak. 108.000,00 €

Immigrazio Zuzendaritza

2.4.5 Ikastetxeetan gizarte-eredu europarraren balioei eta oinarriari buruzko ezagutza eta hausnarketa sustatzea, eta gazteak globalizazio-prozesuetara hurbiltzea.

- * DBHko eta DBHoko gazteentzako III. Bideo-lehiaketa: "Kulturartekotasuna nire auzoan". 32.865,27 €

4.3.5 Nerabe eta gazte etorkinentzako programa espezifikoak diseinatzea.

- * Bakarrik dauden eta adinagatik eta egoera pertsonalagatik gizarte-egoera ahula duten pertsona atzerriarrentzako programak. 230.212,60 €

5.5.5 Gizarte-egoera ahuleneko geografia-eremuei eta giza taldeei ere kultura eskura izateko aukera ematea.

- * Kulturartekotasuna indartzeko programak. 330.000,00 €

Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza

2.4.5 Ikastetxeetan gizarte-eredu europarraren balioei eta oinarriari buruzko ezagutza eta hausnarketa sustatzea, eta gazteak globalizazio-prozesuetara hurbiltzea.

- * Demokrazia esku-hartzaileko prozesuetan espezializatzeko graduondoa, VI. edizioa. 48.000,00 €

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

Nekazaritza Zuzendaritza

1.4.9 Neurrien eta jardueren programa bat ezartzea, diagnostiko fidagarrietan oinarritutakoa, gazteak lehen sektorean lanean hastea eta hor jarraitzea bultzatzeko, belaunaldien arteko ordezkapena erraztu dadin.

* EAEko NEKAZARI GAZTEEN EGITASMOAN jasotako neurriak garatzea. 1.000.000,00 €

Landa Garapeneko Zuzendaritza

1.4.1 Gazteen artean enpresa-bokazioak piztea helburu duten proiektuak koordinatzea.

* Landa-sustatzaileak aholkatzeko/monitorizatzeko GEROA programa (aholkuak banan-banan eta era pertsonalizatuan jasotzeko on-line). 40.000,00 €

* Landa-sustatzaileak sentsibilizatzeko eta animatzeko BERPIZTU programa. 65.000,00 €

2.2.1 Irakaskuntza ez-arautuan eskaintzen diren lanerako prestakuntzako programen eta praktika-programen erakundeen arteko koordinazioa sustatzea.

* Nekazaritza-prestakuntza trinkoko ikastaroen programa. 250.000,00 €

Arrantza Zuzendaritza

1.4.1 Gazteen artean enpresa-bokazioak piztea helburu duten proiektuak koordinatzea.

* Profesional gazteek arrantza-ontziak eskuratu ahal izateko egitura-laguntzak. 25.000,00 €

2.2.1 Irakaskuntza ez-arautuan eskaintzen diren lanerako prestakuntzako programen eta praktika-programen erakundeen arteko koordinazioa sustatzea.

* Pasaiaiko Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoan (Gipuzkoa) ikasteko bekak ematea. 100.000,00 €
Arrantza-prestakuntza Itsasmendikoik kudeatzen du (Landa Garapeneko Zuzendaritza).

**ZEHARKAKO GAZTE POLITIKAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN
LAN, HEZKUNTZA, ETXEBIZITZA ETA INFORMAZIOAREN
GIZARTEAREN ARLOKO POLITIKEN ARTEKO OSAGARRITASUN- ETA
KOORDINAZIO-MAILA, 2007. URTEAN**

Aurrekariak

Jarraian azalduko ditugun balorazioen xedea hau da: 2006ko abenduaren 26ko Gobernu Kontseiluaren Erabakia betetzea; hau da, *Gazteen Euskal Legea izango dena onartu bitartean gazte-politika integrala bultzatzeko aldi baterako neurriak onartzeko erabakia betetzea.*

Erabaki horren arabera, urte amaiera bakoitzean, Kultura Sailak urte horretako lanaren jarraipen-txosten bat aurkeztu behar dio Gobernu Kontseiluari. Txosten horretan, aztertu behar da lan, hezkuntza, etxebizitza eta informazioaren gizarteko politiketan eskumena duten sailen ekintza positiboak zenbateraino koordinatu diren zeharkako gazte-politikarekin. Txosten horretan sail eskudunek aipatutako gaietan zer ekintza gauzatu dituzten adierazi behar da.

Gobernu Kontseiluari bidaltzen zaion txostenean, lana, hezkuntza, etxebizitza eta informazioaren gizarteari buruzko politiken eta gazte-politika integralaren artean dagoen osagarritasun-mailaren inguruko balorazioa erantsi behar da.

Erabaki horrek berak xedatzen du, halaber, Gazteria Zuzendaritza arduratuko dela erabakian aurreikusitakoa betetzeko beharrezkoa den informazioa jasotzeaz eta aztertzeaz. Horretarako, aipatutako gaien inguruan eskumena duten sailek laguntza emango diote behar duen bakoitzean.

Bestalde, Kultura Sailak gazte-politika integrala bultzatzeko eta koordinatzeko mekanismo hauek izan beharko ditu:

- Gazte Ataria eta Leihatila Bakarra (Gazteaukera).
- Gazte-politikarekin zerikusia duten planen arteko koordinazioa.
- Mahai sektorialak.
- Udaletako plan estrategikoak egin eta garatzeko finantzazioa, eta gazteentzako ekipamenduen sarea indartu.

Zeharkako gazte-politikaren eta lanari buruzko politiken arteko koordinazio- eta osagarritasun-mailari buruzko balorazioa

1. Osagarritasun-maila

EAEko Gazte Politika Integralak euskal gazteriaren egoerari buruz egindako diagnostikoaren arabera, lana da gazte-jendearen kezkarik larriena. Langabezia-tasek behera egin dute nabarmen, baina, hala ere, gazteen kolektiboak du langabezia-tasa handiena. Gainera, kontuan hartu behar da lan-baldintzak gero eta kaskarragoak direla, batik bat gero eta ugariagoak direlako aldi baterako lanak, eta soldatak gero eta txikiagoak direlako. Egoera kaskar horrek oraindik ere gehiago eragiten die emakumeei; dena dela, nabarmentzeko modukoa da gero eta parekatuago daudela gizonen egoerarekiko, baina ez nesken lan-baldintzak hobetu direlako, baizik eta gizonezkoenak kaskartu egin direlako.

Egoera horri aurre egiteko eta baztertuta geratzeko arriskua duten langabeen kolektiboa lan-merkatuan sartzeara eragozten duten oztopoak desagerrarazteko, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak hau proposatzen du, laneratze eta prestakuntzarako ekintzen helburuen barruan: gazte-jendearen laneratzea sustatzea, horretarako zenbait neurri ezarrita; besteak beste, lanbide-prestakuntza, enplegurako orientazioa eta motibazioa, eta lan-esperientzia lortzea, kontratazioa bultzatzeko laguntza zuzenak emanez.

Gazte Politika Integralak lanaren eta laneratzearen arloan eta lanerako prestakuntzaren arloan biltzen dituen esku-hartze ildoek bat egiten dute Enplegu Planaren egituraren ardatzekin, batez ere, honako hauekin:

- Langabezian dauden pertsonak laneratzea edo berriz lanean hastea bultzatzea, batez ere lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboak, eta horietako bat gazteen kolektiboa da.
- Enpresa-izpiritua garatzea eta enpresak sortzen laguntzea.
- Dagoen enplegua sendotzea, enpleguaren kalitatea hobetzea eta enplegua sortzen laguntzea.

Horrenbestez, uste dugu Gazte Politika Integralaren eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak lanaren eta prestakuntzaren arloan garatutako politikaren arteko osagarritasun-maila egokia dela.

2.- 2007. urtean gauzatutako ekintzak

2007. urteari dagokionez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, haren Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuordetzaren bidez, Gazte Politika Integralaren esparruan 23 ekintza garatu ditu, lana eta laneratzea eta lanerako prestakuntza arloetan. Ekintza horiek jarraian zehaztuko diren esku-hartze ildoetakoak dira.

(1.1): Politika koordinatua sustatzea, gazteentzako lanpostuak sortzeko eta haiei eusteko, eta, horretarako, ekintza positiboko neurriak hartzea, zerga-abantailak aplikatzea eta kontratazioa bultzatzen duten diru-laguntzak ematea.

Esku-hartze ildo horren barruan, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak zenbait laguntza jarri zituen abian luzaroan langabezian dauden gazteak praktiketan kontrata ditzaten bultzatzeko. 2007. urtean 115 gazte langabe baliatu dira laguntza horietaz (60 neska eta 55 mutil) eta 1.006.250 € gastatu dira.

Laneratzea sustatzeko neurriak garatze aldera, eta lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako gazteak (urritasunak dituzten pertsonak, toxikomano ohiak eta preso ohiak) aldi baterako kontrata ditzaten bultzatzeko, sailak 18 gazte (10 neska eta 8 mutil) aldi baterako kontratatzea bultzatu zuen. Ekintza horretarako 51.250 € erabili ziren.

Gazte langabeak gizarte-ekonomiako enpresetan bazkide izate aldera ezarritako neurriei dagokienez, enpresaren kapital sozialari nahitaez egin beharreko ekarpena finantzatzen lagundu du. Guztira 17 lagun (5 neska eta 12 mutil) baliatu dira baterako finantzaketaz, enpresa horietan bazkide izateko. Neurri horretan 26.084,55 € gastatu dira.

(1.2): Enpleguaren banaketa sustatzeko politika koordinatua garatzea.

Aparteko orduak kenduta edo lanaldia laburtuta gazteentzako enplegua sortzen duten enpresentzako ezarritako laguntza-esparruaren barruan, lan-denbora banatzeko diru-laguntzak eman dira. Guztira, 14.087 € erabili dira eta 13 gazte kontratatu dira (8 neska eta 5 mutil).

Halaber, beste 107 kontraturentzat ere (47 emakume eta 60 gizon) eman dira laguntzak. Hain zuzen, erretiratzeko adinetik hurbil dauden langileei lan-jarduera laburtuta (ordezkotza-kontratua edo beste neurriren bat) lortu dira kontratazio horiek. Guztira, 518.685 € erabili dira. Horren ildo beretik, baina gizarte-ekonomiako enpresen esparruan, 6 gazte (2 neska eta 4 mutil) kontratatu dira; gastua 30.000 eurokoa izan da.

Txanda Kontratua (Gobernu Kontseiluaren 2005eko apirilaren 12ko erabakiari jarraiki) eta Ordezkatza Kontratua (uztailaren 17ko 1194/1985

Errege Dekretuari jarraiki), erretiro aurreratua eta enplegua sustatzeko neurriak arautzekoak, Eusko Jaurlaritzako langile-plantillan aplikatzen ari diren bi neurri dira, baina neurri horien onuradun ez dira beti gazteak izaten.

Neurri hori, halaber, Nekazari Gazteen Plana izenekoak ere hartzen du bere baitan; hortaz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak ere garatzen ditu ildo bereko ekintzak.

(1.3): Orientazio-zerbitzua eta leihatila bakarra garatzea, lan bila dabiltzan edo enpresa berria sortu nahi duten gazteentzat.

EAEEn lan-merkatuko bitartekotza lortzea helburu dugula, Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lanbide izeneko ekimeneko datu-basea izaten jarraitzen dugu, bai eta Lanbide.net enplegu-ataria ere. Horien bidez, lanerako prestakuntza eta orientazioa eskaintzen dugu, eta enplegua aurkitzeko teknikak eta bitartekoak ere bai, besteak beste, curriculumak egiten irakasten dugu eta enpresen eskaeren berri ematen dugu.

Lanbide-orientazioko eta jarraipen pertsonalizatuko zerbitzuei dagokienez, gazte langabeak ibilbidean zehar harrera eta jarraipen integrala izan dezan bermatzeko gauzatzen dira; horrela, bada, 2007. urtean enplegua nola bilatu planifikatzea sustatu da, eta, horretarako, laneratzeko alderdi profesionalak identifikatzen lagundu zaie eta prestakuntza-jarduerak antolatu dira, lan-aukera gehiago izan ditzaten. Programa horietan 19.110 gaztek baino gehiagok parte hartu dute (11.460 neska langabe eta 7.650 mutil langabe), eta 2.111.396,17 € erabili dira.

Bestalde, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak, Nekazari Gaztearen Bulegoaren bidez, laguntza- eta aholkularitza-zerbitzua eskaintzen du, eta, horretarako, langileek prestakuntza-ikastaroak egin dituzte eta beren betebeharra betetzeko protokoloa bidali zaie.

(1.4): Politika koordinatua garatzea, autoenplegua eta gazteek gidatutako enpresak sortzea sustatze aldera, kooperatibismoaren eta beste formula batzuen bitartez.

Gazteen artean enpresa-bokazioak piztea helburu duten proiektuak koordinatzeko, enplegu-sorgune berrien baitan gizarte-ekonomiako enpresak abian jartzeko laguntzak eman ditugu. 2007. urtean, 72 gazte baliatu dira laguntza horretaz (26 neska eta 46 mutil), eta 205.397 € euro erabili dira horretarako.

Gazteen artean enpresa-bokazioak pizte aldera eta gazteek enpresak sor ditzaten sustatze aldera, gazteen autoenplegua sustatzeko laguntzak eman ditugu eta 1.752.000 € gastatu dira. Guztira, 292 gazte izan dira laguntzaren onuradun (150 neska eta 142 mutil).

(1.5): Gazte-enpleguaren kalitatea hobetzea.

Azken helburua enplegu betea, egonkorra eta kalitatezkoa sortzea izanik eta EAEn enplegu-politika gidatzen duten irizpideak kontuan hartuta, 2006. urtean Enplegu Legea izango denaren behin betiko zirriborroa egin genuen. 2007an ez dira ebaluazio-adierazleak ezarri, prozesuak aurrera egiten ez duen arte.

“Laneko istripuak ikertzeko eskuliburua” izenekoak ezarritakoari jarraiki eta “Laneko istripuak ikertzeko dokumentua” izenekoaren bitartez, Osalan erakundea ikerketa bat egiten ari da. Ikerketa horretan, istripuen jakinarazpen ofizialetatik eta istripuak ikertzeko dokumentuetatik ateratako zenbait datu beste datu-base batean bildu dira, “ikertutako istripuei” buruzko datu-basean, hain zuzen. Horrela, heriotza-istripuetan, istripu oso larrietan eta larrietan adinak eta behin-behinekotasunak duen eragina zenbatekoa den jakin daiteke, eta, halaber, adin, kontratu-mota eta lan-egoeraren faktoreak istripuetan zenbatetan izan duen eragina ere jakin daiteke.

Horrezaz gain, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboen kontratazioa sustatze aldera, 82 gazte langabe izan dira kontratu mugagabe baten onuradun: 42 emakume eta 40 gizon. Helburu horretarako, 555.000 euroko gastua egin da.

(2.2): “Bizitza osoan zeharreko prestakuntza” kontzeptuaren garapena sustatzea.

Irakaskuntza ez-arautuan eskaintzen diren lanerako prestakuntzarako eta praktiketarako programen esparruan, junior enpresa eta txandakako prestakuntzari buruzko Dekretua eman zen. Lanbide-hastapeneko eta/edo lanerako prestakuntzako ikasleek laneratzeko gaitasun handiagoa izatea da programa horien helburua. Horretarako, txandakako prestakuntzako praktikak egiten dituzte, hau da, prestakuntza-aldiak enpresa batean egiten dituzte, ikasketekin txandakatuta, eta produkzio-prozesuen barruan. Ekintza horren bidez, 884 lagun izan dira onuradun guztira (528 emakume eta 356 gizon), eta 880.346,80 euroko gastua egin da.

Bestalde, hurrengo lau urteetan gehienez, gazte langabeen % 100ari (legealdiaren joanean, urtean % 25i, hain zuzen) enpleguko, prestakuntzako, birziklatzeko, lan-praktiketako edo aldi baterako gizarte-laneko kontratuko esperientziaren bat emate aldera, diru-laguntzak eman ditugu lanerako prestakuntzarako eta orientaziorako jarduerak antolatzeko eta enplegu-motibaziorako. Jarduera horietan, guztira, 3.268 gaztek parte hartu dute (1.960 neska eta 1.308 mutil) eta 4.490.864, 36 euroko gastua egin da.

(2.3): Neurriak jartzea etorkinek lanbide-heziketa duintasunez jaso ahal izateko, eta lan-munduan egoera hobea lortu ahal izateko.

Etorkinek hezkuntza jasotzeko eta lan duina izateko duten eskubidearen inguruan sentsibilizatzeko, etorkinei beste zerbitzu batzuk eskaintzen dizkieten erakundeen bidez (esaterako, CEAR, Caritas, Sartu Federazioa...), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak etorkinei eman diezazkiekeen zerbitzuei buruzko informazioa eman zaie. Egoera arautua ez duten etorkinek ere jo dezakete zerbitzu horietara.

(2.5): Ikastetxeak gizarte-ingurunera hurbiltzea.

Ikastetxearen curriculum-proiektuan hurbileko ingurune soziokulturalaren errealitatea, bai eta Europakoa ere, sustatzeko eta bertan sartzen laguntzeko, bisita gidatuak antolatu dira, ikasleek Euskal Herriko lau Justizia Jauregiak ezagutu ditzaten, eta Justizia Administrazioari buruzko unitate didaktiko bat egin da. Unitate didaktiko hori ikastetxeetan banatzen da. Ekintza horretan DBHko bigarren zikloko 6.112 ikaslek parte hartu dute, eta 12.000 € gastatu dira.

(4.3): Gazteen gizarte-bazterketa prebenitzea, eta horretarako esku hartzea.

2007. urtearen joanean, nerabe eta gazte arau-hausleekin, gizartearen aldeko bitartekaritza-, adiskidetze- eta konpontze-programak ere sustatu dira; horrezaz gain, osasun-tratamenduko eta gizarte- eta hezkuntza-laneko programak, besteak beste, sustatu dira. Programa horien bidez, zentroetan sartuta edukitzea ez den beste neurri batzuk bultzatu nahi dira, eta, halaber, gatazkak konpontzeko beste sistema batzuekin aritu, nerabe eta gazteekiko esku-hartzeak bide judizialekoak izan ez daitezen lortzeko. Hori lortze aldera, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak 1.124.448 euroko gastua egin du ingurune-irekiko neurriak bultzatzeko (eguneko zentroa, zaintzapeko askatasuna, gizarte- eta hezkuntza-lanak).

Halaber, 35.000 euroko inbertsioa ere egin da, erakunde publikoekin eta pribatuekin beste 6 hitzarmen sinatu baitira (EUDEL, Bilboko Metroa, Zuzenean Fundazioa...), gizartearen onerako prestazioen eta zeharkako irtenbideen inguruko neurriak sustatzeko.

Bestalde, 449.280 euro erabili dira Gazte Justiziako Sistemak berriz hezteko egiten duen lana ezagutarazteko.

Bestalde, gizartean desabantailan dauden 16 urtetik gorako gazteei heldutasunera igarotzen laguntzeko, Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko 10/2000 Legeari jarraiki eta gizarte-bazterketaren aurkako

12/1998 Legeari jarraiki, 30 urte baino gutxiagoko gazteen gizarte-bazterketa eragozte aldera, 5.410 gaztek (3.770 emakume eta 1.640 gizon) jaso dute oinarrizko errenta; horretarako 27.990.000 euro erabili dira.

18 urtetik gorako gazteei laguntzeko gizarte-larrialdietarako laguntzei (GLL) dagokienez, 2007. ekitaldi honetan ez daukagu horiei buruzko ebaluatzeko daturik.

3. Koordinazio-mailari buruzko balorazioa

II. Gazte Plana egitean Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren laguntza izan genuen, diagnosia egiteko zein Gazte Planak bere baitan hartuko zituen ekintzak zehazteko. Behin hori eginda, Planak berak eragindako dinamikari ekin genion eta lehen bezala, Gazte Politika Integralaren inguruko erakundeen arteko parte-hartzea, batez ere, zuzendaritza-batzordearen eta Gazte Politika Integralaren sailen arteko batzorde teknikoaren bidez gauzatu da.

Zeharkako Gazte Politikaren eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak garatutako politiken arteko koordinazio-mailari buruzko balorazioa egin zuten, eta hona hemen adierazitakoa: komeni da Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren bidez hobetzea Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eta Kultura Sailaren arteko koordinazioa.

Horretarako, 2003ko abenduaren 3an Zuzendaritza Batzordeak egin zuen bilkuran, zenbait neurri onartu zituen: zenbait mahai sektorial sortzea, plan sektorialak koordinatzeko berariazko mekanismo gisa; ekintzen analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea; sail bakoitzean beren programazioa eta ebaluazioa egin dezaten sustatzea; eta Gazteen Euskal Behatokiaren koordinaziopean estatistika-informazioaren truketzea. Neurri horiek oraindik ere indarrean daude, Gazteen Euskal Legea izango dena onartu bitartean erakundeei onartutako aldi baterako neurriei jarraiki.

Zeharkako gazte politikaren eta hezkuntza-politiken arteko koordinazio- eta osagarritasun-mailari buruzko balorazioa

1. Osagarritasun-maila

Hezkuntza alderdi erabakigarria da gazteentzat. Irakaskuntza formala, dela ikastetxeetan, unibertsitateetan eta lanbide-heziketako zentroetan, bai eta zentro horietatik kanpoko hezkuntza ez-formal eta informala ere, funtsezkoak dira egungo gazteen garapenerako.

Hezkuntzaren helburu orokorrak hauek dira: norberaren errealizazioa, gizarte-integrazioa eta hiritartasun aktiboa. Hezkuntzak, halaber, ezinbesteko zeregina du laneratzeko gaitasuna lortze aldera.

Gazte Politika Integralak Hezkuntza eta Lanerako prestakuntza arloan bere baitan hartzen dituen ekintza nagusien artean, hauek dira nabarmentzeko modukoak:

- Hezkuntza-zentroetan lanbideko informazio- eta orientazio-zerbitzuak sustatzea.
- Lanbide Heziketari prestigioa emateko eta hartara gazteak erakartzeko planak sustatzea.
- Eskolako eta eskolatik kanpoko jarduera guztietan balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea, zentroko urteko planean hezkuntza-mota hori sartzeko orientazioak ezarrita.
- Ikastetxeak emigrazioaren errealitatera egokitzea, zentro horiek baliabide egokiez hornituta.

Gazte Politika Integralak bere baitan hartzen dituen lehentasunezko ildo horien eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak garatutako hezkuntza-politikaren artean osagarritasun-maila handia dago.

Lehenik eta behin, Hezkuntza Sailak lanbide-heziketaren inguruan gauzatzen dituen jarduerak **Lanbide Heziketako Euskal Planaren** barruan kokatzen dira. Plan horrek kualifikazioaren eta prestakuntzaren behar eta eskaera guztiak hartzen ditu bere baitan, bai eta horiei dagozkien neurriak ere, hasierako prestakuntza zein etengabea kontuan hartzen dituela. Planak prestakuntzaren eta lanbide-heziketaren sistema integratua diseinatu du, prestakuntzaren eta lanbide-hezkuntzaren arloan hainbat kolektibo, erakunde eta enpresak dituzten arazoei tratamendu globala, koordinatua eta ahalik eta onena emateko gai dena.

Era berean, sistema gai da pertsonen modu desberdinetan lortutako lanbide-gaitasun eta aurrerapenak ebaluatu eta aitortzeko, planaren egiaztapen-sisteman integratzen dituela. Prestakuntzen eta Lanbide Heziketaren sistema integratu horrek prestakuntza integratua eskaintzen du instituzioen aldetik, eta hori prestakuntza modulu integratuen katalogoa eginez eta katalogo hori eskaintzen duten ikastetxe sare baten bidez lortzen du. Katalogo horiek modulu-paketetan daude antolatuta, eta ikasleen eta biztanleria aktiboaren beharrei egokituta daude.

Nabarmentzeko modukoak dira, bestalde, **Lanbide Hastapeneko** programak; izan ere, helburu zehatz hau dute: hezkuntza-sistema inongo titulazio akademikorik gabe uzten duten ikasleak heldutasunera iristeko eta lan-merkatuan sartzeko prestatzea. Hori lortu ahal izateko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta udalek, mankomunitateek eta irabazi asmorik gabeko erakundeek lankidetzak-hitzarmenak adostu eta abian jartzen dituzte.

Halaber, **Osabidezko Hezkuntzako** programak Osabidezko Hezkuntzako Partzuergoen babesarekin garatzen diren erakundeen

arteko programak dira, eta Gizarte Ekintzaren esparrukoak dira lehentasun handiena duten jarduerak. Hau dute xede: gutxiengo etnietako haurrek eta gazteek, iragaitzazko bidariak eta gizarte-arazo larriak dituzten taldeetakoek ohiturak eta gaitasunak eskuratzea, hezkuntza-sisteman arrakastaz jarraitzen eta normaltasunez gizarteratzen laguntzeko. Ohiko hezkuntza-sisteman behar bezala aurrera egin ez eta behar baino lehenago utzi duten gazteentzako ere bideratzen dira programak.

Horiez gain, **Hezkuntza Berrikuntza** alorreko hainbat ekintza ere nabarmentzeko modukoak dira, Gazte Politika Integralaren noranzko berekoak baitira:

- Ikaslearen prestakuntza integralaosatzea, berariazko hezkuntza-programen bidez: afektibitate- eta sexu-hezkuntza, bide-hezkuntza, garapenerako hezkuntza...
- Etengabeko prestakuntzaren eta lanerako prestakuntzaren inguruko programak ikastetxeetan erants ditzaten bultzatzen jarraitzea, enpresa-alorrarekin lankidetzan sendotzen dela.
- Izpiritu ekintzailea sustatu eta enpresa-kultura bultzatu, lanbide-heziketa zehatzak ikasten ari diren ikasleen artean.

Eta azkenik, nabarmendu beharrekoak dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak **bizikidetzaren aldeko hezkuntzaren** esparruan garatu dituen ekintzak; izan ere, Gazte Politika Integralak bere baitan hartzen dituen esku-hartzeko ildoarekin bat datoz erabat. Hau da, politika horrek bide ematen du, hezkuntzaren esparruan, balioetan oinarritutako hezkuntza eta bakerako eta bizikidetzako hezkuntza bultzatzeko prebentziozko neurriak ezartzeko.

Horrenbestez, hezkuntzaren arloan garatutako politikari dagokionez, osagarritasun-maila egokia dela uste dugu, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Zuzendaritza Batzordeak egindako Gazte Politika Integralaren artekoa.

2.- 2007. urtean gauzatutako ekintzak

2007. urtean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak gazteen aldeko 23 ekintza positibo garatu ditu; ekintza 1 I. arloan (Lana eta Laneratzea), 16 ekintza II. arloan (Hezkuntza eta Lanerako prestakuntza), 2 ekintza IV. arloan (Osasuna) eta gainerako 4 ekintzak Balioen arloan. Hortaz, ekintza horiek guztiak bat datoz Gazte Politika Integralaren esku-hartzeko ildoekin. Jarraian, horiek xeheago adierazi ditugu.

(0.3): Hezkuntza-esparruan prebentzioko neurriak ezartzea, balioetan oinarritutako hezkuntza eta bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza sustatzeko.

Hezkuntza-komunitatean elkarriketarako foroak eta esparruak sustatu dira, horien bidez gatazkak konpondu eta indarkeria gaitzestea lortze aldera. Guztira, 454 berrikuntza-proiektu egin dira eta 717 ikastetxetan aholkularitza eskaini dugu; horretarako 102.674 € erabili dira.

Bestalde, bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzaren esparruko gida didaktikoak editatu dira, eta horretarako 49.690 euroko inbertsioa egin da. Halaber, indarkeriaren larritasuna ez erlatibizatzeke, testuliburuei emandako baimenak berrikusten jarraitu dugu.

2007. urtearen joanean ere sail horrek jarraitu du bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzaren gainean irakasleak prestatzeko plana garatzen. Horretarako, 44.600 euroko gastua egin da, hain zuzen 359 prestakuntza-proiektutan; guztira, 2.210 irakaslek eta 717 ikastetxek parte hartu dute.

(1.3): Orientazio-zerbitzu bat eta leihatila bakarra garatzea, lan bila dabiltzan edo enpresa bat sortu nahi duten gazteentzat.

Lanbide-orientazioko gida komuna osatzea zen helburua, lana sortu eta bilatzeari dagokionez gazteei erantzun eta aholkua emateko. Gida horren bidez, halaber, lana bilatzeko orduan lanarekiko jarrera aktiboagoa bultzatu nahi zen. Horrenbestez, bi gida egin dira DBHko eta Batxilergoko ikasleen artean Lanbide Heziketaren berri emateko; guztira, 184.411 euroko gastua egin du sailak.

(2.1): Ikastetxeak lan-mundura hurbiltzea.

Industria Sailarekin aritu gara elkarlanean, enpresa-mundua ikasleen kolektibora hurbiltzeko, industria- eta ekonomia-ingurunea hobeto ezagutu dezaten laguntzeko eta, horrela, horiekiko jarrera positiboak eta hartzaileak sortzea eragiteko.

Ikastetxeetan lanbideko informazio- eta orientazio-zerbitzua sustatzeko eta gazteei haien heziketa-ibilbidea hautatzeko eta enplegua bilatzeko aholkuak emateko, hona hemen gauzatutako jarduerak: horren ardura zuten langileen prestakuntza hobetu da, 617 ikastetxetan orientatzaileak jarri dira, bitarteko materialak sortu dira eta zonakako egitura iraunkorrari eusten zaio, Berritzugeneen inguruko prestakuntza-eskaintza guztia integra daitekeena.

Hezkuntza-sistematik kanpo inongo titulazio akademikorik gabe geratu diren ikasleak prestatzeko, lanbide-hastapeneko programak egin dira. Horiek 16 eta 21 urte bitarteko gazteentzako gizarte-garantiako prestakuntza-programen barruan erantsi dira; guztira, 12.754.053 € erabili dira.

Lanbide Heziketari prestigioa eman eta hartara gazteak erakartze aldera bideratutako planak sustatzeko eta LHren ezaugarriak eta egungo erronkak ezagutarazteko, Bilboko erakustazokan “Lanbide Heziketa: malgutasuna eta aldaketara egokitzea. LHri buruzko Nazioarteko V. Kongresua” antolatu da, Lanbide Heziketari duen kudeaketa-kalitatearengatik merezi duen onespena emateko. Kongresu horrek 270.386 euroko gastua eragin zuen.

Lanbide Heziketako ikasleek prestakuntza-modulua lantokian egin dezaten ikasleak hartzen dituzten enpresentzako laguntzen atalean, 9.647 ikasle izan dira enpresetako praktika horien onuradun, bai eta programa horretan parte hartu duten 5.292 enpresa ere; guztira, 2.430.213 euroko gastua eragin du Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Zuzendaritzarentzat.

Gazteek prestakuntza-maila handiagoa izan dezaten, haiek Informazioaren Teknologia Berrien (ITB) gainean gehiago jakitea bultzatuta eta lanerako prestakuntzan eleaniztasuna erantsita, ikastaroetan eta mintegietan parte hartu duten 2.544 irakasle trebatu dira, 240 prestakuntza-proiektu eta 537 berrikuntzarako proiektu egin dira; guztira, 428.678 € erabili dira.

(2.2): “Bizitza osoan zeharreko prestakuntza” kontzeptuaren garapena sustatzea.

Hezkuntza arautua amaitu ondoren gazteek prestakuntza-prozesuan jarrai dezaten sustatzeko, diru-laguntzak eman dira; bizitza osoan zeharreko ikaskuntza-kultura hedatzeko eta sustatzeko publizitate-kanpaina bat egin da, eta etengabeko irakaskuntzarako www.hiru.com ataria izaten jarraitzen dugu. Horretarako guztirako, 2.937.504,86 euroko gastua egin da.

(2.4): Ikastetxeetan balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea.

Batetik, topaketak antolatu dira eskola-bizikidetzari buruzko jardunbide onak trukatzeko eta jakinarazteko, eta eskualdekako 19 mintegi egin dira; horietan 231 irakaslek parte hartu dute, eta 212.800 euro erabili dira.

Halaber, balioetan oinarritutako hezkuntzari buruzko proiektuak bultzatu dira ikastetxeetan, irakasleei aholkuak eman zaizkie eta haiek

trebatu dira, eta bizikidetzarako Hezkuntza Programa garatu da; guztira, 1.281.755 euro erabili dira.

Ikaskuntza-komunitateen proiektuei dagokienez, gatazkak elkarriketaren bidez eta denon partaidetzarekin konpontze aldera irakasleek eta ikasleek saiakuntza-esperientziak izan ditzaten bultzatzeko eta, hala, bizikidetza sustatzeko, 692 berrikuntzarako proiektu egin dira, eta 93 mintegi eta prestakuntza-ikastaro antolatu dira. Horietan 2.210 irakaslek hartu dute parte, eta 129.600 euroko gastua egin da.

Halaber, ikastetxeetan gizarte-eredu europarraren balioen eta oinarriei buruzko ezagutza eta hausnarketa sustatzeari eta gazteak globalizazio-prozesuetara hurbiltzeari dagokionez, ikasleei bekak eman zaizkie atzerrira joateko, ikasleen arteko trukeak eta topaketa aldeaniztunak sustatu dira, eta Europako Programak ere sustatu dira (Socrates Programa, Leonardo Da Vinci Lanbide Heziketako Programa eta beste batzuk). Arlo horretan sailak 775.420 euroko gastua egin du.

Bestalde, indarkeriazko portaera eta jarrera guztiei aurre egiteko, gatazkak konpontzeko programak abian jartzen dira oraindik ere; Bizikidetzarako Programa, MUSE Programa, eskola-absentismoari buruzko azterlanak eta bestelakoak.

(2.5): Ikastetxeak gizarte-ingurunera hurbiltzea.

Ikasleak ikastetxetik kanpoko inguruneari buruz dakiena eta ingurunearekiko duen ikuspegia lagungarria izan dadin bertan egoki konpontzeko eta baliabideak zuzen erabiltzeko, zenbait programa gauzatu dira, eta 26.000 € erabili.

(2.6): Ikasleen parte-hartzea.

Ikasleek irakaskuntza-zentroetan parte hartzeko duten modu desberdinak garatuko dituzten argibideak lantzeko eta zabaltzeko, zuzendariak akreditatzeko prestakuntza-jarduerarako deialdia egin da, eskualdekako 33 mintegi —480 orientzailek parte hartu dute horietan— eta 3 orientazio-jardunaldi antolatu dira; horretarako, sailak 6.975 euroko gastua egin du.

(2.7): Aniztasunaren eta desberdintasunaren inguruko ekintzak.

Hezkuntza-zentroak emigrazioaren errealitatera egokitzeko, eta immigranteari harrera-fasean baliabideak emateko eta murgiltze-gelak beharrezko baliabideez hornitzeko 2.139.000 euroko gastua egin da.

(4.1): Gazteen artean bizimodu eta jarrera osasungarriak sustatzea.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hainbat programa garatu ditu, Drogamenpekotasunari buruzko Hiru Urteko Planak bere baitan hartzen dituenak, eskola-arloan droga-mendekotasunak prebenitzeko. Guztira, 4.457.706,78 € erabili dira 2007. urtearen joanean.

Bestalde, ikasleek bizimodu eta jarrera osasungarriak eskura ditzaten laguntzeko, curriculumaren berrikuntza-proiektuak eta prestakuntza-proiektuak garatu dira eta irakasleei aholkularitza eman zaie; horiez gain, ikasleen artean afektibitate- eta sexu-hezkuntzari buruzko proiektuak garatu dira. Guztira, 86.980 € erabili dira.

3. Koordinazio-mailari buruzko balorazioa

Hezkuntza-berrikuntzarako eta lanbide-heziketa sustatzeko gauzatutako programez gain, nabarmentzeko modukoa da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketak Sailak gauzatutako ekintza berezia, balioetan oinarritutako hezkuntza eta bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza sustatzeko, bai eta bizimodu eta jarrera osasungarriak sustatzeko gauzatutakoa ere.

Bi jarduera-eremu horiek, neurri batean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eskumen-esparrua gainditzen dutenez, oraindik ere indarrean daude, Gazte Politika Integralaren ildoei jarraiki, Eusko Jaurlaritzako bi mahai sektorial: bata **Balioetan oinarritutako eta bizikidetzarako hezkuntzari** buruzkoa, eta, bestea, **Osasunerako eta drogen mendekotasunari buruzko hezkuntzari** buruzkoa. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zuzenean parte hartzen duenez, bermatuta dago sailen arteko koordinazio-maila egokia izango dela, bai eta erakundeen arteko planen artekoa ere.

Zeharkako gazte-politikaren eta etxebizitza-politiken arteko koordinazio-mailari eta osagarritasun-mailari buruzko balorazioa

1. Osagarritasun-maila

Etxebizitza eskuratzeko zailtasuna da gazteek duten oztopo nagusietakoa erabateko emantzipazioa lortzeko.

Gazte Politika Integralean lehentasunezko zenbait helburu ezarri dira gazteen kolektiboak etxebizitza errazago eskura dezan; esate baterako, alokairua sustatzea, etxebizitza hutsen parkea mobilizatzea eta gazteen beharretara egokitzea etxebizitza-tipologiak.

Bestalde, Etxebizitza Plan Zuzentzailea 2006-2009 izenekoak honela definitu du haren egitekoa: “Herritarren etxebizitza-premiak osorik atenditzea da, batez ere premia larria duten pertsonena, premia-egoera desberdinei egokitutako neurrien bitartez eta etxebizitzaren alorrean erantzukizuna duten agente guztien parte-hartzearekin”.

